

Lan-  
-zuzenbideko  
legeria

Legislación  
de Derecho  
laboral

Legge-testuak  
Textos legales



## Lan-zuzenbideko legeria

1. Langileen Estatutuari buruzko Legea
2. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legea
3. Sindikatu-askatasunari buruzko Lege Organikoa
4. Lan-harremani buruzko Errege Lege-dekretua
5. Gizarte Segurantzaren Enpresak Inskribatzeari, eta Langileen Afiliazioari, Altei, Bajei eta Datu-aldaketei buruzko Erregelamendu Orokorra

## Legislación de Derecho laboral

1. Ley del Estatuto de los Trabajadores
2. Ley de Prevención de Riesgos Laborales
3. Ley Orgánica de Libertad Sindical
4. Real Decreto-ley sobre Relaciones de Trabajo
5. Reglamento General sobre Inscripción de Empresas y Afiliación, Altas, Bajas y Variaciones de Datos de Trabajadores en la Seguridad Social



# Lan-zuzenbideko legeria

1. Langileen Estatutuari buruzko Legea
2. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legea
3. Sindikatu-askatasunari buruzko Lege Organikoa
4. Lan-harremanei buruzko Errege Lege-dekretua
5. Gizarte Segurantzaren Enpresak Inskribatzeari, eta Langileen Afiliazioari, Altei, Bajei eta Datu-aldaketei buruzko Erregelamendu Orokorra

# Legislación de Derecho laboral

1. Ley del Estatuto de los Trabajadores
2. Ley de Prevención de Riesgos Laborales
3. Ley Orgánica de Libertad Sindical
4. Real Decreto-ley sobre Relaciones de Trabajo
5. Reglamento General sobre Inscripción de Empresas y Afiliación, Altas, Bajas y Variaciones de Datos de Trabajadores en la Seguridad Social

Primera edición,  
cerrada al 31 de diciembre de 2006

Lehenengo argitaraldia,  
2006ko abenduaren 31n itxia

2006

Universidad de Deusto  
Deustuko Unibertsitatea

Instituto Vasco de  
Administración Pública  
Herri Arduralaritzaren  
Euskal Erakundea

Bilbao - Bilbo

Lan honek IVAP/HAEEn laguntza jaso du.

Eskubide guztiak erreserbatu daude. Debehatuta dago, legegaren arabera, argitalpen hau bikoiztea, biltzea edo igortzea, ez osorik, ez zatika, ezta inolako bitarteko edo prozedura teknikoren bidez ere, argitaratzaileen esanbidezko baimenik gabe.

- © Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoak: F. Javier Arrieta Idiakez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola, Esther Urrutia Idoiaga.
- © Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua
- © IVAP/HAEEn Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Deustuko Unibertsitatea  
1. postakutxa-48080 Bilbo  
[www.deusto.es](http://www.deusto.es)  
[publicaciones@deusto.es](mailto:publicaciones@deusto.es)  
ISBN: 978-84-9830-531-9

**Aurkibidea**

**Índice**

<b>Abreviaturas</b> .....	10
<b>Presentación</b> .....	12
<b>Prólogo</b> .....	25
§1. <b>Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores</b> .....	37
§2. <b>Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales</b> .....	231
§3. <b>Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical</b> .....	337
§4. <b>Real Decreto-ley 17/1997, de 4 de marzo, sobre Relaciones de Trabajo</b> .....	359
§5. <b>Real Decreto 84/1996, de 26 de enero, por el que se aprueba el Reglamento General sobre Inscripción de Empresas y Afiliación, Altas, Bajas y Variaciones de Datos de Trabajadores en la Seguridad Social</b> .....	387
<b>Índices analíticos</b> .....	519
Castellano-euskera .....	521
Euskera-castellano .....	611



<b>Laburdurak</b> .....	11
<b>Aurkezpena</b> .....	13
<b>Atarikoa</b> .....	15
§1. <b>Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzazko Errege-dekretua, Langileen Estatu- tuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena</b> .....	37
§2. <b>Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa</b> .....	231
§3. <b>Abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoa, Sindikatu-askatasunari buruzkoa</b> ..	337
§4. <b>Martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-dekretua, Lan-harremanei buruzkoa</b> ...	359
§5. <b>Urtarrilaren 26ko 84/1996, Errege-dekretua, Gizarte Segurantzaren Enpresak Inskribatzeari, eta Langileen Afiliazioari, Altei, Bajei eta Datu-aldaketei bu- ruzko Erregelamendu Orokorra onetsi duena</b> .....	387
<b>Aurkibide analitikoak</b> .....	519
Gaztelania-euskara .....	521
Euskara-gaztelania .....	611

# Abreviaturas

<b>BOE</b>	Boletín Oficial del Estado
<b>DA</b>	disposición adicional
<b>DD</b>	disposición derogatoria
<b>DF</b>	disposición final
<b>DT</b>	disposición transitoria
<b>núm.</b>	número
<b>OIT</b>	Organización Internacional del Trabajo
<b>STC</b>	Sentencia del Tribunal Constitucional

# Laburdurak

<b>a. x.</b>	azken xedapena
<b>EAO</b>	Estatuko Aldizkari Ofiziala
<b>KAE</b>	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
<b>LANE</b>	Lanaren Nazioarteko Erakundea
<b>x. g.</b>	xedapen gehigarria
<b>x. i.</b>	xedapen iragankorra
<b>x. in.</b>	xedapen indargabetzailea
<b>zk.</b>	zenbakia

# Presentación

El lector tiene en sus manos un nuevo fruto de la que está resultando productiva colaboración entre el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP-HAEE) y el Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto.

Este libro, que recoge las versiones en castellano y en euskera de los textos legales más importantes en el ámbito del Derecho laboral, tiene especial importancia, puesto que comprende las disposiciones que regulan un espacio fundamental para el ser humano y la sociedad, como es el trabajo y las correspondientes relaciones laborales.

El Derecho laboral es una rama del ordenamiento jurídico más moderna que otras. Pese a esa modernidad, ha tenido un desarrollo notable en los territorios de Occidente, empezando por la lucha del movimiento obrero hasta llegar a la extensión de la «sociedad del bienestar» en el siglo XX. Como consecuencia de todo ello, las relaciones laborales se consideran elementos indispensables dentro de la organización social, por lo que los poderes públicos han tenido que aprobar una regulación cada vez más amplia y profunda en esta materia, dejando de lado las reivindicaciones un tanto extremas que, de cuando en cuando, han formulado determinados profetas liberales.

En lo que se refiere a su contenido, el Derecho laboral presenta múltiples singularidades si lo comparamos con otras ramas del ordenamiento jurídico, tanto por su carácter tuitivo, como por las diferencias que lo separan del Derecho civil en cuanto a léxico y terminología. La preocupación y el trabajo de la Universidad de Deusto y el Servicio de Traductores del IVAP-HAEE han ido encaminados, precisamente, a verter al euskera de forma adecuada todos ellos, guardando, eso sí, la coherencia necesaria con las demás ramas del Derecho.

El objeto de esta publicación es poner a disposición de los operadores jurídicos que quieran trabajar en euskera (alumnos y alumnas, profesores y profesoras, trabajadores y trabajadoras y sus representantes, empleadores y empleadoras, juzgados de lo social, abogados...) un instrumento útil que les permita utilizar estos textos con facilidad y seguridad jurídica, y, a través del uso, componer y profundizar en el discurso jurídico en euskera y su terminología legal.

Ahora, suya es la palabra.

*Jon Koldobika Urrutia Mingo*  
Director del IVAP-HAEE

# Aurkezpena

IVAP-Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren arteko lankidetzaren oparoaren beste fruitu bat duzu esku artean, irakurle.

Lan-zuzenbideko lege-testuak euskaraz eta gaztelaniaz biltzen dituen liburu honek berebiziko garrantzia du, bestalde, gizakiaren eta gizartearen arlo ezinbesteko bat arautzen duten xedapenak jasotzen dituelako: lana eta lan-harremanak, alegia.

Zuzenbidearen beste zenbait arlo baino berriagoa da lan-zuzenbidea. Halere, garapen izugarria izan du mendebaldeko herrialdeetan, langile-mugimenduaren borrokarekin hasi eta XX. mendean gauzatu zen Ongizatearen Gizartearen Hedapenarekin. Horien ondorioz, lan-harremanak gizarte-antolamenduaren osagarri ezinbesteko jo izan dira eta, beraz, Herri Aginteez gero eta araugintza zabalagoa eta sakonagoa bideratu izan dute arlo honetan, muturreko liberal profeten aldizkako aldarrikapenak gora behera.

Lan-zuzenbideak, edukiari bagagozkio, berezitasun franko du zuzenbidearen gainerako adarrekin alderatzen badugu, bai lan-zuzenbidearen babes-izaeran, bai zuzenbide zibilarekiko dituen desberdintasunetan, bai lexiko eta terminologian ere. Horiek guztiak euskaraz ematea, eta egoki ematea, eta zuzenbidearen gainerako arloekiko koherentzia gordez, izan da Deustuko Unibertsitateak eta IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren ardura eta langintza.

Argitalpen honen helburua euskaraz jardun nahi luketen eragile juridikoei tresna baliagarria eskuratzea da, bai ikasle-irakasleei, langileei eta langileen ordezkariari, lan-emaileei, lan-epaitegiei zein abokatuei, erraztasunez eta segurtasun juridikoaz erabili ahal izan ditzaten testuok eta, erabiliaren erabiliz, euskarazko diskurtso juridikoa, euskal lege-hizkera gatzatu eta mamitu dadin.

Haiena da orain hitza.

*Jon Koldobika Urrutia Mingo*  
IVAP-HAEEko zuzendaria



# Atarikoa

XIX. mendean Europako kode zibiletan zerbitzuen errentamendua eta antzeko beste erakunde juridiko batzuk arautzen ziren, kontratua oinarri hartuta eta alderdien arteko borondate-autonomiaren printzipioa nagusi zela. Hala ere, adar juridiko berri eta erabat autonomoa sortu behar izan zen ugazaben eta langileen arteko lan-harremanak arautzeko. Horrek ordura arte pentsaezina zen aldaketa ekarri zuen.

Industrializazioaren garapenak, kapitalismoaren ekoizpen-metodo berriek, lanbide-arriskuak modu ikaragarrian gehitzeak, eta proletarioaren beharrezanasezeari dagokionez ideia liberalak zaharkituta geratzeak, ikuspuntu politiko, ekonomiko zein juridikotik, ekarri zuten «gizarte-auzia» deritzona.

«Gizarte-auziak» ezegonkortasuna eragin zuen Europa osoan. Bada, ezegonkortasun horri aurre egin eta gizarte-bakea berrezartzeko asmoarekin sortu zen lan-legeria, XIX. mendearen amaieran. Hartara, adar juridiko berriaren eginkizun nagusia da langileek eta enpresaburuek dituzten aurkako interesak orekatzea. Esangura horretan, lan-legeriak babes-izaera du langileari begira; izan ere, langilea da lan-kontratuaren alderdi ahula.

Lana gizartean egiten den ginoan, XX. mendean gizarteak gero eta erakunde gehiagoren premia izan du. Halaber, erakundeok modu egokian arautu behar izan dira, lan-zuzenbidearen ikuspuntutik.

Espainiako legeria aplikatzen da Alava/Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herrialdeetan ere. Legeria horri erreparatu, aldi batzuk argiro bereiz daitezke.

Horrela, lehenengo lan-legeria XIX. mendearen azken laurdenekoa da; legeria horrek oinarri ditu garai hartan agintzen zuen burgesiaren ideiak, gizarte-arazoaren eretzean. Langile bakoitzari begira, legeria horretan nabarmendu behar dira jarrera filantropikoa eta alderdien arteko desberdintasunak berezkoak direla uste izatea. Aitzitik, proletarioari dagokionez, beldurra da legeriaren oinarri. Langileak konturatu zirenean batera jardun behar zutela, orduan sortu zen proletarioa gizarte-klase berri gisa. Hain justu ere, burgesia iraultzaren eta agintea galtzearen beldur zen.

Ildo horretatik sortu ziren emakumeen eta haurren lana babesteko lehenengo legeak; langilearen osasunaren gaineko ardura hartu zen, segurtasun eta higienerari buruzko arauak emanez; laneko denbora arautzeari ekin zitzaion, lanaldiari eta atsedeneri buruzko arauak emanez; eta lanbide-arriskuak estaltzearen alde egin zen, lan-istripuen legeak eginez eta herri-aurreikuspeneko neurriak hartuta. Edozelan ere, langileak elkartzea debekatu eta zigortu zen.

XX. mendearen hasieran, igarri-igarrian geratu zen lehenengo lan-legeen eragin-garritasunik eza. Horren arrazoi nagusia izan zen gizarte-legeriaren beharrianekin bat egiteko moduko jurisdikzio berezi baten gabezia. Horren ondorioz, aldi berria hasi zen. Aldi berri horretan estatuak parte hartzea erabaki eta, ondorenez, eredu arau-emaile moderno baten alde egin zuen. Eredu arau-emaile horretara bildu ziren gizarte-legeak arrazionalizatzeko xedea eta autonomia kolektiboa. Era berean, estatuak abian jarri zituen lan-arloko politika betearazteko erakunde burokratiko bereziak; erakunde horien artean Lan Ministerioaren sorrera nabarmendu behar da.

Primo de Riveraren diktadurapean lan-arautegia sistematizatzeko lehenengo ahaleginak egin ziren. Alabaina, Espainiako bigarren errepublikan arautu zen oso-osoan lan-kontratua, eta lehenengo aldiz arautu zen langileen eta ugazaben elkartze-ko askatasuna. Orobat, lan-istripuen aurkako nahitaezko aseguruaz ezarri zen, eta ahaleginak egin ziren gizarte-aseguruen babes-teknika beste gizarte-arrisku batzuetara hedatzeko.

Gerra zibila amaitu eta erregimen frankista ezarri ondoren, 40. hamarkadan, lan-legeria bildu zen demokrazia organikora. Horren arabera, hasieran, estatuak neurritz kanpoko partaidetza izan zuen laneko harreman juridikoetan, eta nazional-sindikalismoa erakunde bihurtu zen. Horrek guztiorrek lan-gatazka ukatzea ekarri zuen. Horren ordean, banakako langilea gehiago babestu zen, enplegu-egonkortasuna xede nagusi gisa hartuta.

Nolanahi ere, erregimenak ekonomian izandako liberalizazioak 50. hamarkadatik aurrera ekarri zuen lan-harremanak hein batean arrazionalizatzea eta eraberritzea. Arian ere, lan-harreman kolektiboak garrantzia hartzen hasi ziren, *sui generis* erako negozio kolektiboak onartu zen, bai eta ezari-ezarian gatazka-kolektiboak ere. Bestalde, aldi honetan behin betiko jaurzia eman zen, gizarte-aseguru heterogeneoetatik Gizarte Segurantzaren Sistema homogeneora. Aurrerapauso horien esparru berria trantsizio demokratikoko lan-arauek osatu zuten.

Egin-eginean ere, prozesu demokratiko horren ondorio diren lan-arauak jaso dira liburuki honetan, bi hizkuntzatan, gaztelaniaz eta euskaraz, eta zehatzago esanda honako hauek: martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzazko Errege-dekretua, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena; azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan-arriskuaren Prebentzioari buruzkoa; abuztuaren 2ko 11/1995 Lege Organikoa, Sindikatu-askatasunari buruzkoa; martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-dekretua, Lan-harremanari buruzkoa; urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege-dekretua, Gizarte Segurantzaren Enpresak Inskribatzeari, eta Langileen Afiliazioari, Altei, Bajei eta Datu-aldaketei buruzko Erregelamendu Orokorra onetsi duena.



## Lan-legeria eta euskara

Ez da berria euskararen eta lan-arloko gaien arteko lotura. Zinez, lanak gizartearen esparru guztiak ukitzen ditu. Esate baterako, euskal gizartearen lana estu lotzen zaio euskarari, euskara gizarte-komunikaziorako hizkuntza den heinean.

Azal-azaletik ez bada ere, lan-arloan idatzitako lehenengo testuen berri ematen digu Jose Paulo de Ulibarri y Galíndezek (1775-1847). Arabako Okendo herrikoa, eta ogibidez abere sendatzaile, Ulibarrik *Gutunliburua* idatzi zuen. Bada, *Gutunliburua* (36. or. eta ondorengoak) ikastunentzako kontratu batzuen ereduak jaso ziren, ikastunek ferratzailearen lanbidea ikas zezaten.

Egia esan, XIX. mendeko jazoerek eta, gerogarrenean, lan-harremanak hainbeste hedatzeak eragin zuten, hizkuntzaren ikuspuntutik, kontzeptu berri asko jasotzea, gehienbat arlo politikoan eta gizarte-arloan. *Langile*, *enpresaburu*, *kapitalismo*, *sozialismo*, *klase* eta beste hitz asko hiztegietan sartu ziren edo haien esparru lexikoa zabaldu egin zen. Are gehiago, kasu batzuetan, gizarte- eta ekonomia-kontzeptuak nahasi ere egin ziren.

Gaztelaniaren kasuan gertatu aldera, euskararen kasuan, ofizialtasunik ezak berearekin ekarri zuen kontzeptuok itzulpenen bidez sartzea hizkuntzan, edo, osterantzean, esparru juridikotik kanpoko beste eragile batzuek halakoak erabiltzea.

Edonondik begira dakiola ere, gogora ekarri behar da Espainiako bigarren errepublikaren garaian eta XX. mendearen 30. hamarkadan euskararen alde egindako lan eskerga. Urte horietan euskarak lexiko-ondare joria osatzea lortu zuen, batik batik prentsari esker.

Dena den, geroko gertakizunek ezerezean utzi zituzten ahalegin guztiak. Gaur egungo demokrazia-garaian, euskararen ofizialkidetasuna aldarrikatu ondoren barririk ahalbidetu da euskara bizitasunez erabiltzea enpresetan eta enpresa horiek egindako lan-kontratuetan. Gure gizartearen, lan-kontratuak eta inprimakiak euskaraz eskaintzen dira. Eginkizun hori, oraindik aitzindari dena, osatzeko datoz, etorri ere, lege-testuak, horietatik baitira lan-zuzenbidearen egoera eta inguruabar zehatz guztien iturri.

## Euskarazko testuaren ezaugarriak

Indarrean dagoen lan-legeria euskaraz emateak aurretiazko hausnarketa sakona dakar; izan ere, kontuan hartu behar dira hizkera juridikoaren berezitasunak ezaugarri linguistikoei dagokienez. Halaber, zuzenbidean ohikoa denari jarraituz, lan-legerian ere aintzat hartu behar dira izaera eta eduki desberdineko testuak.

Lan-legeriaren kasuan ahaleginak egin dira, argitaratze unea arte egindako aldarazpen guztiak kontuan hartzeko. Horrez gain, Euskaltzaindiaren jarraibide linguistikoak oso-osoan errespetatzea izan da helburu, lan-arloko esparru juridikoan ere euskararen normalizazioak bat egin dezan normalizazio linguistikoarekin.

Bestalde, lehen ere bilduma elebidun honetan bete diren irizpideei eutsi zaie. Horiek kontuan hartuta, oinarritzko norabide izan dira, oraingo honetan ere, euskarazko bertsioa ontzeko puntuan, honako hauek: segurtasun juridikoa, bi testuen arteko baliokidetasun funtzionala eta erabilgarritasuna. Horrenbestez, irakurlearentzat lagungarri izango direlakoan, hona hemen terminologiaren eta diskurtsoaren inguruan euskarazko testuak dituen ezaugarri garrantzitsuenak.

### *Terminologia*

Esparru juridikoaren adarretatik lan-legeria da pisu handia duten horietako bat, gizaratean dituen ondorengatik. Hortaz, euskaraz erabili beharreko terminologia finkatzeko unean, ezin ahatz daitezke bilduma honetan aurretiaz argitaratutako tituluak, ezta UZEIren moduko erakundeen eskarmentua edota EUSKALTERM terminologia-banku publikoaren antzeko tresnak ere. Alabaina, horien guztien proposamenak ñabartu eta egokitu egin behar izan dira, euskarazko testu propioa eratzeko, eta testu hori irakurlearentzat ulerterraza eta erabilgarria izan dadin. Arian ere, hizkera arruntan kontzeptu batzuek antzeko esanahia badute ere, segurtasun juridikoaren meserako, badira argiro bereizi beharrekoak. Hori dela eta, beharrezkoa da kontzeptu batzuk bereiztea. Hona hemen, horren erakusgarri, adibide batzuk:

a) Gaztelaniazko *discapacidad*, *minusvalía*, *incapacidad*, *invalidez*, *ineptitud* eta *disminución* kontzeptuek euren parekoak behar dituzte euskaraz ere. Horregatik, euskaraz modu honetara eman dira horiek: *desgaitasuna*, *minusbaliotasuna*, *ezgaitasuna*, *baliaezintasuna*, *trebetasunik eza* eta *urritasuna*. Hona hemen kontzeptu bakoitzaren adierazle esanguratsuak:

#### Discapacidad/desgaitasuna

(§1. 4.2.c) (g) *Tampoco podrán ser discriminados por razón de discapacidad...*

(§1. 4.2.c) (e) *Orobat, langileek ezin izango dute bereizkeriarik izan desgaitasunarengatik...*

#### Minusvalía/minusbaliotasuna

(§1. 11.2.c) (g) *... teniendo en cuenta el tipo o grado de minusvalía y las características del proceso formativo a realizar.*

(§1. 11.2.c) (e) *... minusbaliotasun-mota edo -gradua eta gauzatu beharreko prestakuntza-prozesuaren ezaugarriak kontuan hartuta.*

#### Incapacidad/ezgaitasuna

(§1. 49.1.g) (g) *Por muerte, jubilación en los casos previstos en el régimen correspondiente de la Seguridad Social, o incapacidad del empresario...*

(§1. 49.1.g) (e) *Enpresaburuaren heriotzarengatik, jubilazioarengatik, Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko araubidean ezarritako kasuetan, edo ezgaitasunarengatik...*

**Invalidez/baliaezintasuna**

(§1. 49.1.e) (g) *Por muerte, gran invalidez o invalidez permanente total o absoluta del trabajador,...*

(§1. 49.1.e) (e) *Langilearen heriotzarengatik, baliaezintasun handiarengatik edo baliaezintasun iraunkor osoa zein erabatekoarengatik,...*

**Ineptitud/trebetasunik eza**

(§1. 39.3) (g) *No cabrá invocar las causas de despido objetivo de ineptitud sobrevenida...*

(§1. 39.3) (e) ... *ezin izango dira alegatu kaleratze objektiboaren arrazoi diren gertatze bidezko trebetasunik eza...*

**Disminución/urritasuna**

(§1. 20.3) (g) ... *teniendo en cuenta la capacidad real de los trabajadores disminuidos,...*

(§1. 20.3) (e) ... *langile urrituen benetako gaitasuna hartuko da kontuan.*

b) *Gaztelaniazko equivalencia, equiparación eta asimilación* ere bereizi dira euskarazko testuan. Horrenbestez, euskaraz modu honetara eman dira kontzeptu horiek hurrenez hurren: *baliokidetzea, parekatzea eta berdinestea.*

**Equivalente (equivalencia)/baliokidea (baliokidetzea)**

(§1. 11.1) (g) ... *títulos oficialmente reconocidos como equivalentes...*

(§1. 11.1) (e) ... *modu ofizialean baliokidetzat aitortutako tituluak...*

**Equiparación/parekatzea**

(§1. 22.5) (g) *Cuando se acuerde la polivalencia funcional o la realización de funciones propias de dos o más categorías, grupos o niveles, la equiparación se realizará en virtud de las funciones que resulten prevalentes.*

(§1. 22.5) (e) *Eginkizun-aniztasuna edo kategoria, talde edo maila bi edo gehiagoren eginkizunak gauzatzea erabakitzen denean, eginkizun nagusien arabera egingo da parekatzea.*

**Asimilación/berdinestea**

(§5. 41.3) (g) ... *la asimilación de tales socios a trabajadores por cuenta propia o a trabajadores por cuenta ajena...*

(§5. 41.3) (e) ... *bazkide langileak beregaineko langileekin berdinestea edo inorentzat lan egiten duten langileekin berdinestea...*

c) Lan-zuzenbidearen eremuan, begi-bistakoak dira *alokairuaren eta soldataren arteko desberdintasunak*. Izatez, *salario* hitza, euskaraz *alokairu* gisa eman

dena, lan-zuzenbidearen berezko kontzeptua da, hots, enpresaburuek, eurentzat lan egiteagatik, langileei trukean ematen dieten ordainsaria. Alokairuek babes be-  
rezia dute; hortik bada, *alokairuko langileak*.

(§1. 1.3.e) (g) *Los trabajos familiares, salvo que se demuestre la condición de asalariados de quienes los llevan a cabo...*

(§1. 1.3.e) (e) *Familiako lanak, frogatzen ez bada lan horiek egiten dituztenak alokairuko langileak direla...*

Legegileak, Langileen Estatutuan, kasu bakar batean, *salario* kontzeptua erabili beharrean, *sueldo* kontzeptua erabili du. Horregatik, kasu horretan, euskaraz ere eutsi egin zaio *soldata* kontzeptuari.

(§1. 45.1.h) (g) *Suspensión de sueldo y empleo, por razones disciplinarias.*

(§1. 45.1.h) (e) *Soldata eta enplegua etetea, diziplina-arrazoien ondorioz.*

Dena den, nabarmendu behar da *soldata* kontzeptua erabili ohi dela lan-zuzenbidetik at dauden subjektuentzat, esaterako, funtzionarioentzat.

Ildo bertsutik, inorentasunaren eta mendekotasunaren ezaugarriak bete ez eta zerbitzuak ematen dituzten profesional batzuek —medikuek, abokatuak, arkitektoek, kasu—, irabazten dutena adierazteko, gaztelaniaz *honorarios* esan bide da. Testuan hitz hori agertzen ez bada ere, kasu horietan euskaraz *zerbitzu-sariak* kontzeptua erabiliko litzateke.

d) Gaztelaniazko *promoción* kontzeptua euskaraz beti ez dator bat *sustatze* hitzarekin. Horren ageriko dira, berbarako, testuan jaso diren *promoción profesional* y *promoción económica* kontzeptuak. Kasu horietan euskarazko testuan *lanbide-aurrerakuntza* eta *ekonomia-aurrerakuntza* kontzeptuen alde egin da. Itxuraz, *promoción profesional* esateko *maila-igoera* kontzeptua aproposa izan daiteke, baina lege-bilduma honetan kontzeptu hori erabili da gaztelaniazko *ascenso* emateko. Hona hemen adibide batzuk:

#### Promoción profesional/lanbide-aurrerakuntza

(§1. 39.3) (g) *La movilidad funcional se efectuará sin menoscabo de la dignidad del trabajador y sin perjuicio de su formación y promoción profesional...*

(§1. 39.3) (e) *Mugigarritasun funtzionala gauzatuko da langilearen duintasuna gutxietsi gabe eta horren lanbide-prestakuntzari eta -aurrerakuntzari kalterik egin gabe.*

#### Ascenso/maila-igoera

(§1. 24.1) (g) *Los ascensos dentro del sistema de clasificación profesional se producirán...*

(§1. 24.1) (e) *Lanbide-sailkapenerako sistemaren barruan, maila-igoerak egingo dira...*

e) Gaztelaniazko testuan sarri jaso da *acuerdo* kontzeptua, baina ez beti esan-gura berean. Euskaraz kasuan kasuko inguruabarren arabera itzuli da kontzeptu hori. Zehatzago esateko, gaztelaniazko *acuerdo* euskaraz *erabaki* edo *akordio* kontzeptuekin eman daiteke, kasuaren arabera. Horrela, *erabakia* kontzeptua erabili da, subjektu bakar batek edo interes berberak dituzten subjektu batzuek neurri bat hartu dutenean, alde bakarrez. Aitzitik, *akordioa* kontzeptua aukeratu da, interes desberdinak dituzten subjektu batzuek neurri bat hartzea adostu dutenean.

#### Acuerdo/erabakia

(§1. 41.1) (g) *La dirección de la empresa, cuando existan probadas razones económicas, técnicas, organizativas o de producción, podrá acordar modificaciones sustanciales de las condiciones de trabajo...*

(§1. 41.1) (e) *Ekonomia-, teknika-, antolaketa- eta ekoizpen-arrazoi egiaztatuak dau-denean, enpresako zuzendaritzak lan-baldintzen funtsezko aldarazpenak erabaki ditzake...*

#### Acuerdo/akordioa

(§1. 41.2) (g) *La modificación de las condiciones establecidas en los convenios colectivos regulados en el Título III de la presente Ley sólo podrá producirse por acuerdo entre la empresa y los representantes de los trabajadores...*

(§1. 41.2) (e) *Lege honen III. tituluko hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak aldaraz daitezke enpresaren eta langileen ordezkarien arteko akordioarekin bakarrik,...*

f) Gizarte Segurantzaren ondoretarako berebiziko garrantzia du gaztelaniazko *jubilación* kontzeptuak. Edozelan ere, legegileak ez du kontzeptu hori definitu. Hori gorabehera, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginetik ondoriozta daitekeenez (160. artikulutik 166.era), gaur egun kontzeptu hori estu lotzen zaio prestazio ekonomiko jakin bati, alegia, lan egiteari uzteagatik jaso daitekeen prestazioari, betiere legeak ezarritako betekizunak beteta.

Euskarazko testuan maileguaren alde egin da. Ondorenez, *jubilazioa* kontzeptua erabili da:

(§1. 12.6) (g) *Para poder realizar este contrato en el caso de trabajadores que no hayan alcanzado aún la edad de jubilación...*

(§1. 12.6) (e) *Jubilazio-adinik ez duten langileen kasuan, kontratu hori egin ahal izateko,...*

Benaz, hizkera arruntean beste kontzeptu batzuk ere erabili izan dira euskaraz, gaztelaniazko *jubilación* emateko, hala nola, *zahartzaroa* eta *erretiroa*. Haatik, Gizarte Segurantzaren hizkera teknikoari helduz, aise atzeman daiteke kontzeptu horiek leku propioa dutela Gizarte Segurantzaren historian, gaztelaniazko *vejez* eta *retiro* adierazteko.

Esangura horretan, *vejez/zahartzaroa* arriskua da, eta *jubilación/jubilazioa* arrisku horrek eratorritako gertakizuna. Bada, gertakizun horrek sor dezakeen beharrian-egoera edo gabezia-egoera saihesteko ematen dira prestazio ekonomikoak. Gogora bedi gizarte-aseguruen garaian arriskua zela babesaren objektua; Gizarte Segurantzaren Sistematan, aldiz, beharrian-egoera edo gabezia-egoera babesten da, arriskua gorabehera.

Berebat, *retiro/erretiroa* kontzeptua gizarte-aseguruen hastapenetan kokatu behar da. Konturatu bedi 1919ko martxoaren 11ko Errege-dekretuak (Gaceta de Madrid, 1919ko martxoaren 12, 71. zk.) oinarri batzuk arautu zituela, langileen erretiroak indartzeko asmoarekin. Dena den, gizarte-aseguru hori ez zen indarrean jarri, 1921eko urtarrilaren 21eko Errege-dekretuak (Gaceta de Madrid, 1921eko urtarrilaren 23, 23. zk.) 1919ko martxoaren 11ko Errege-dekretua aplikatzeko erregelamendua onetsi arte.

Halaber, *retiro/erretiroa* kontzeptuari estu lotzen zaio *seguro obligatorio de vejez/zahartzaroen nahitaezko aseguru* kontzeptua. Aipatu errege-dekretuek ekin zioten aseguru hori arautzeari. Gerogarrenean, 1947ko apirilaren 18ko Dekretuak (EAO, 1947ko maiatzaren 5, 125, zk.) zahartzaroen eta baliaezintasunaren gizarte-aseguru eratu zuen. Dekretu horren zioen azalpenean parekatu egiten dira zahartzaroen eta baliaezintasuna ondoreki dagokienez. Bestela esanda, garai hartan zahartzaroen trebetasunik ezarekin identifikatu zen. Ondoriozta daitekeenez, gaur egun bestelakoa da Gizarte Segurantzaren Sistematan *jubilazioak* duen esangura.

g) Gizarte Segurantzaren Sistematan, gaztelaniazko *riesgo* eta *contingencia* kontzeptuek esanahi eta einkizun desberdinak dituzte. Horrela, *Riesgo/arriskua* eta *contingencia/gertakizuna* kontzeptuen arteko bereizketaren arabera, *arriskuak* beharrian-egoeraren bigarren arrazoi dira, eta *gertakizunak* lehenengoak. Beharbada, hurrengo adibide honekin hobeto ulertuko da: *istripuak* eta *gaixotasunak arriskuak* dira; *arrisku* horien ondorioak (adibidez, lan egiteko aldi baterako *ezgaitasuna*, *ezgaitasun iraunkorra* eta *heriotza*), berriz, *gertakizunak*; eta *gertakizun* horiek beharrian-egoera edo gabezia-egoera sortzen dute, errentak gutxitu, gastuak gehitu edo bi gauzak batera gertatzen direlako.

Hala ere, legegileak sarritan nahasten ditu horiek. Gaztelaniazko testuan erraz atzeman daiteke nahaste hori hainbatetan. Horregatik, euskarazko testuan, kontzeptu horien hitzez hitzekotasunari eutsi zaio. Beraz, *riesgo* eta *contingencia* kontzeptuak adierazteko *arriskua* eta *gertakizuna* hitzak erabili dira, eta, horren erakusgarri, testu elebidunetik hartutako aipamen hauek:

### Contingencia/gertakizuna

(§5. 3.1.) (g) ... *la cobertura para la protección frente a las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales...*

(§5. 3.1.) (e) ... *lan-istripuek eta lanbide-gaixotasunek eratorri gertakizunak babesteko estaldura gautzateari begira.*

(§5. 14.3.2.) (g) *Si la opción u opciones para la formalización de la protección frente a los riesgos profesionales y, en su caso, para la cobertura de la prestación económica por incapacidad temporal derivada de contingencias comunes se hubiera realizado a favor de una entidad gestora de la Seguridad Social,...*

(§5. 14.3.2.) (e) *Lanbide-arriskuen aurkako babesa gauzatzeko eta, hala denean, gertakizun arruntek eratorrialdi baterako ezgaitasunaren ondoriozko prestazio ekonomikoa estaltzeko, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaile baten aldeko aukera edo aukerak egin badira,...*

Orobat, orain arte azaldutakoaren nahitaezko osagarri dira lan honen eranskinetara bildutako aurkibide analitikoak, gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania. Egin-eginean ere, bilduma honetan ohikoa denez, aurkibide analitiko horietan modu sistematikoan eta zehatz-mehatz jaso dira lan-legeriaren lexikoa eta lexiko horrek lege-testuan duen kokalekua. Hartara, irakurleak lagungarri izango ditu aurkibideok ere, argitalpen hau erabiltzean.

#### *Diskurtsoaren nondik norakoak*

a) Gaztelaniaz *apartado*, *párrafo*, *número* eta antzekoak nahierara erabiltzeko joera dago. Hala ere, euskarazko testuan honetara egituratu dira artikuluko batek izan ditzakeen zati desberdinak: artikuluko bakoitzak *idatz-zati (apartado)* bat edo batzuk ditu. *Idatz-zati* horietako bakoitzak, berebat, *paragrafoak* edo *lerrokadak (párrafos)* izan ditzake. *Paragrafo* hitza erabili da zati zenbakidunak identifikatzeko, eta *lerrokada* hitza zati zenbakirik gabekoetan. Horrez gain, *paragrafo* edo *lerrokada* bakoitzak *letrak (letras)* izan ditzake.

b) Gaztelaniazko adjektibo erreferentziales arazo ugari sortzen dituzte euskarazko ordaina ematean. Horren adibide dira gaztelaniazko *social*, *sindical*, *institucional*, *profesional* eta *judicial* adjektiboak.

Bada, arau orokor gisa, hitz-elkarketa erabili da, batez ere, kontuan hartuta horixe dela Euskaltzaindiak hobetsitako joera (ikus 25. araua). Hala ere, testuinguru dela eta, batzuetan, hitz-elkarketak ez du balio, eta, horregatik, maileguetara jotzea erabaki da. Hona hemen adibide batzuk:

#### Servicios sociales/gizarte-zerbitzuak

(§1. 52.d) (g) *...acreditada por los servicios sociales de atención o servicios de salud, según proceda.*

(§1. 52.d) (e) *...laguntzarako gizarte-zerbitzuek edo osasun-zerbitzuek egiaztatu badute, kasuan kasuan bidezkoa zer den kontuan hartuta.*

#### Organizaciones sindicales/sindikatu-erakundeak

(§3. 2.2) (g) *Las organizaciones sindicales en el ejercicio de la libertad sindical tienen derecho a:...*

(§3. 2.2) (e) *Sindikatu-erakundeek sindikatu-askatasuna egikaritzean eskubidea dute:..*

### Participación institucional/instituzio-partaidetza

(§3. 6.1) (g) *La mayor representatividad sindical reconocida a determinados sindicatos les confiere una singular posición jurídica a efectos, tanto de participación institucional como de acción sindical.*

(§3. 6.1) (e) *Sindikatu batzuei aitortutako sindikatu-ordezkaritza handienak egoera juridiko berezia dakar, instituzio-partaidetzari zein sindikatu-ekintzari dagokienez.*

### Interés profesional/lanbide-interesa

(§4. 11.a) (g) *Cuando se inicie o se sostenga por motivos políticos o con cualquier otra finalidad ajena al interés profesional de los trabajadores afectados.*

(§4. 11.a) (e) *Greba hasteko zein grebari eusteko arrazoiak politikoak direnean edo ikututako langileen lanbide-interesekin zerikusirik ez dutenean.*

### Resolución judicial/ebazpen judiziala

(§5. 61.2) (g) *Las bajas declaradas indebidas por resolución judicial firme surtirán los efectos que la misma determine...*

(§5. 61.2) (e) *Ebazpen judizial irmoaren bidez adierazitako bidegabeko bajek sortuko dituzte ebazpen horrek ezarri ondoreak,...*

## Argitaraldiaren arduradunak

Lan-legeriaren euskarazko testua eta argitaraldi elebiduna, bilduma honen beste titulu batzuekin gertatzen den bezala, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren arteko elkarlan-hitzarmenaren ondorio dira. Azken horrek ondu ditu, unibertsitate bereko Zuzenbide Fakultateko Euskara Juridikoaren Mintegiarekin batera, lehen idatzaldia eta horren gaineko berrikuspenak, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean lan-zuzenbideko irakasle den Javier Arrieta Idiakezen eskutik, eta fakultate berean irakasle diren Gotzon Lobera eta Andres Urrutiaren gidaritzapean. Bilduma honetako beste lege-testuen terminologiarekin koordinazio-lana burutzeko eta argitaraldia prestatzeko laguntasuna eman du Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasle den Esther Urrutia Idoyagak. Kontuan hartu dira, orobat, Herri Arduralaritzako Euskal Erakundearen Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egindako oharra, terminologiari dagokionez.

Hona hemen, bada, lan-legerian oinarritzekoak diren testuak, gure gizarteko esparru garrantzitsuenetako batean zuzeneko eragina dutenak. Bilduma honetako testuetan ohikoa denez, egileok helburu bakarra izan dugu, alegia, eragile juridikoei, eta gizarteari orokorrean, lanabes egokiak eskura jartzea, euskaraz jardun ahal izateko edozein esparrutan. Beraz, urrats bat gehiago eman nahi izan dugu, mundu juridikoan euskara gero eta gehiago erabil dadin.

*Egileak*



# Prólogo

Cuando en pleno siglo XIX, los códigos civiles europeos regulaban las figuras del arrendamiento de servicios u otras similares, bajo el prisma contractual, inspirados únicamente en el principio de la autonomía de la voluntad de las partes, resultaba difícil vislumbrar el cambio fundamental que iba a suponer la aparición de una disciplina totalmente autónoma y propia, caracterizada por regular las relaciones laborales existentes entre patronos y obreros.

El desarrollo de la industrialización, los nuevos métodos de producción capitalistas, el aumento inusitado de los riesgos profesionales y la obsolescencia del ideario liberal, en sus tres vertientes política, económica y jurídica, para satisfacer las necesidades del proletariado, dieron lugar a la denominada «cuestión social».

Ante el clima de inestabilidad que supone en toda Europa la «cuestión social», la legislación laboral surge a finales del siglo XIX con la intención de reestablecer la paz social. Para ello, la función primordial de la nueva disciplina consiste en equilibrar los intereses opuestos de los trabajadores y empresarios. En este sentido, la legislación laboral se caracteriza por su carácter tuitivo para con el trabajador, entendido como parte débil del contrato de trabajo.

Durante todo el siglo XX es la propia sociedad, en la que se incardina el fenómeno laboral, la que ha ido reclamando, de forma progresiva, la aparición de nuevas figuras y su regulación adecuada desde el punto de vista del Derecho del Trabajo.

En el caso concreto de la legislación española, aplicable en los territorios históricos de Alava/Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa, pueden diferenciarse una serie de períodos.

Así, la aparición de la primera legislación laboral, durante el último cuarto del siglo XIX, obedece a la concepción que la burguesía dominante tenía del problema social. Respecto del trabajador, considerado individualmente, destacan la

actitud filantrópica y la convicción del carácter natural de las desigualdades. Sin embargo, respecto del proletariado, nueva clase social fruto de la concienciación de los trabajadores de actuar conjuntamente, el fundamento inspirador de la legislación es el miedo a la revolución y a la pérdida del poder. En este contexto, por una parte, surgen las primeras leyes tutelares del trabajo de la mujer y del niño; se disciplina la salud del obrero, mediante la promulgación de normas de seguridad e higiene; se comienza a regular el tiempo de trabajo, mediante normas específicas sobre jornada laboral y descansos; y se apuesta por la cobertura de los riesgos profesionales, mediante leyes de accidentes de trabajo y medidas de previsión popular. Pero, por otra parte, se prohíbe y sanciona el asociacionismo obrero.

En los albores del siglo xx, la ineficacia de las primeras leyes laborales, debida, en gran medida, a la ausencia de una jurisdicción específica que se adecuase a las necesidades de la legislación social, abre las puertas a un nuevo período. El Estado decide intervenir, y, como consecuencia de ello, se avanza hacia un modelo normativo moderno, en el que, junto a la racionalización de las leyes sociales, tiene cabida la autonomía colectiva. Igualmente, el Estado comienza a dotarse de un aparato burocrático específico para ejecutar la política laboral, en el que destaca la creación del Ministerio de Trabajo.

Si bien durante la dictadura de Primo de Rivera se produce el primer intento sistematizador de la normativa laboral, será durante la Segunda República española cuando se regule de forma completa el contrato de trabajo, la libre asociación de obreros y patronos, o se instaure el seguro obligatorio contra accidentes de trabajo, al tiempo que se pretende extender a otros riesgos sociales la técnica de protección de los seguros sociales.

Tras la guerra civil y la instauración del régimen franquista, durante la década de los 40, la legislación laboral pasa a formar parte de la denominada democracia orgánica. El riguroso intervencionismo del Estado sobre las relaciones jurídicas de trabajo y la institucionalización del nacional-sindicalismo niegan, en principio, la conflictividad laboral. Como contrapartida, se intensifica la protección legal del trabajador individual, bajo la máxima de la estabilidad en el empleo. Por el contrario, la liberalización económica del régimen supone, a partir de los años 50, una cierta racionalización y modernización de las relaciones laborales. En efecto, se produce un cambio de rumbo en las relaciones laborales colectivas; se comienza a aceptar una negociación colectiva *sui generis*, así como un incipiente reconocimiento de los conflictos colectivos. Por otra parte, es en este período cuando se produce el salto definitivo de una serie de seguros sociales heterogéneos a un sistema de Seguridad Social homogéneo. Todos estos avances encontrarán su nuevo marco en las normas laborales de la transición democrática.

Son precisamente las normas laborales surgidas de ese proceso democrático las que se ofrecen en este volumen, en su versión bilingüe castellano-euskera, y,

más concretamente, las siguientes: el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores; la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales; la Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical; el Real Decreto-ley 17/1977, de 4 de marzo, sobre Relaciones de Trabajo; y el Real Decreto 84/1996, de 26 de enero, por el que se aprueba el Reglamento General sobre Inscripción de Empresas y Afiliación, Altas, Bajas y Variaciones de Datos de Trabajadores en la Seguridad Social.

## La legislación laboral y la lengua vasca

No es nueva la relación entre la lengua vasca y los temas laborales. Como no podía ser menos, el fenómeno laboral se halla presente en todos los ámbitos de la sociedad, y, en el caso de la sociedad vasca, también aparece relacionado con la lengua vasca, como lengua de comunicación social.

Sin ánimo de ser exhaustivos, un primer testimonio de los textos escritos en materia laboral nos lo da Jose Paulo de Ulibarri y Galíndez (1775-1847). Este alavés de Okendo, veterinario de profesión, es autor del *Gutunliburua*, en el que se recoge (p. 36 y ss) un modelo de contrato para aquellos aprendices que se iniciaban en el arte de los herradores.

Lo cierto es que el siglo XIX y la evolución de las relaciones laborales supusieron, desde el punto de vista idiomático, un vuelco en muchos conceptos, sobre todo, en lo referente al vocabulario político y social. Palabras como *trabajador*, *empresario*, *capitalismo*, *socialismo*, *clase* y muchas otras comenzaron a tener entrada en los diccionarios o a ampliar su campo léxico, llegando a situaciones donde se entrecruzaron lo social y lo económico.

En el caso del euskera, a diferencia del castellano, la falta de oficialidad hizo que la introducción de estos términos se debiera a la traducción o a su utilización extrajurídica por otras instancias privadas.

Es interesante resaltar el importante esfuerzo que en este tema supuso, en el caso del euskera, la experiencia de la Segunda República española, y en general de los años treinta del siglo XX, años en los que el euskera, sobre todo a través de la prensa, logró hacerse con un acervo lexical propio en este campo.

Los acontecimientos posteriores dieron al traste con aquellos intentos. Sólo la posterior declaración de cooficialidad de la lengua vasca, ya en la actual etapa democrática, ha traído consigo que hoy en día el euskera tenga vida propia en las empresas y en la contratación laboral que las mismas llevan a cabo. En nuestra sociedad, los contratos de trabajo y los formularios ya se ofrecen en euskera. A completar esa labor, todavía pionera, vienen ahora los textos legales, precisamente la fuente de la que se nutren todas las realizaciones concretas del Derecho del Trabajo.

## Características del texto en euskera

La labor de proporcionar en euskera una versión de la legislación laboral en vigor precisa de una reflexión sobre las características lingüísticas de un lenguaje especializado como el jurídico, que además presenta en este caso, como es frecuente en el mundo del Derecho, textos de diferente factura y contenido.

En el caso de la legislación laboral, se ha buscado que, al lado de las modificaciones legislativas efectuadas hasta el momento de su publicación, se cumplan, en el texto en euskera, las directrices lingüísticas de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, a fin de que la normalización del euskera en el ámbito jurídico y laboral vaya pareja con su normalización lingüística.

Por otro lado, los criterios ya establecidos y contrastados en esta colección de textos bilingües han sido tenidos en cuenta, a la hora de garantizar como parámetros fundamentales del texto en euskera, la seguridad jurídica, la equivalencia funcional entre ambos textos y la accesibilidad para quien la utilice. Para que el lector tenga un conocimiento más cabal de lo expuesto, he aquí una descripción de los rasgos más característicos de la terminología y el discurso empleado en la versión en euskera.

### Terminología

La legislación laboral es una de las ramas de mayor trascendencia social en el mundo jurídico. De ahí que la terminología a utilizar en la versión en euskera requiera aprovechar la experiencia de los anteriores títulos de esta colección y la de instituciones como UZEI, o instrumentos como el banco terminológico público EUSKALTERM, siempre matizando y tamizando sus propuestas, desde la perspectiva de la construcción de un texto que permita al lector disponer de una versión en euskera ágil y manejable. Si bien en el lenguaje común algunos conceptos tienen un significado parecido, en ocasiones es conveniente diferenciarlos claramente cuando se emplean en un contexto técnico, por razones de seguridad jurídica. En este sentido, se ha optado por diferenciar algunos conceptos, como se demuestra a través de las siguientes notas:

a) Los conceptos castellanos de *discapacidad*, *minusvalía*, *incapacidad*, *invalidez*, *ineptitud* y *disminución*, tan frecuentes en el mundo laboral y asistencial, se han vertido al euskera de la siguiente manera, intentando reflejar la diferente naturaleza de su significado: *desgaitasuna*, *minusbaliotasuna*, *ezgaitasuna*, *baliaezintasuna*, *trebetasunik eza* y *urritasuna*. He aquí una serie de ejemplos al respecto:

#### Discapacidad/desgaitasuna

(§1. 4.2.c) (g) *Tampoco podrán ser discriminados por razón de discapacidad...*

(§1. 4.2.c) (e) *Orobat, langileek ezin izango dute bereizkeriarik izan desgaitasunarengatik...*

### Minusvalía/minusbaliotasuna

(§1. 11.2.c) (g) ... *teniendo en cuenta el tipo o grado de minusvalía y las características del proceso formativo a realizar.*

(§1. 11.2.c) (e) ... *minusbaliotasun-mota edo -gradua eta gauzatu beharreko prestakuntza-prozesuaren ezaugarriak kontuan hartuta.*

### Incapacidad/ezgaitasuna

(§1. 49.1.g) (g) *Por muerte, jubilación en los casos previstos en el régimen correspondiente de la Seguridad Social, o incapacidad del empresario...*

(§1. 49.1.g) (e) *Enpresaburuaren heriotzarengatik, jubilazioarengatik, Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko araubidean ezarritako kasuetan, edo ezgaitasunarengatik...*

### Invalidez/baliaezintasuna

(§1. 49.1.e) (g) *Por muerte, gran invalidez o invalidez permanente total o absoluta del trabajador,...*

(§1. 49.1.e) (e) *Langilearen heriotzarengatik, baliaezintasun handiarengatik edo baliaezintasun iraunkor osoa zein erabatekoarengatik...*

### Ineptitud/trebetasunik eza

(§1. 39.3) (g) *No cabrá invocar las causas de despido objetivo de ineptitud sobrevenida...*

(§1. 39.3) (e) ... *ezin izango dira alegatu kaleratze objektiboaren arrazoi diren gertatze bidezko trebetasunik eza...*

### Disminución/urritasuna

(§1. 20.3) (g) ... *teniendo en cuenta la capacidad real de los trabajadores disminuidos...*

(§1. 20.3) (e) ... *langile urrituen benetako gaitasuna hartuko da kontuan.*

b) Igualmente, se han diferenciado en euskera los conceptos *equivalencia*, *equiparación* y *asimilación*. Sus correspondencias en euskera se han dado de este modo: *baliokidetzea*, *parekatzea* y *berdinestea*.

### Equivalencia (equivalencia)/baliokidea (baliokidetzea)

(§1. 11.1) (g) ... *títulos oficialmente reconocidos como equivalentes...*

(§1. 11.1) (e) ... *modu ofizialean baliokidetzat aitortutako tituluak...*

### Equiparación/parekatzea

(§1. 22.5) (g) *Cuando se acuerde la polivalencia funcional o la realización de funciones propias de dos o más categorías, grupos o niveles, la equiparación se realizará en virtud de las funciones que resulten prevalentes.*

(§1. 22.5) (e) *Eginkizun-aniztasuna edo kategoria, talde edo maila bi edo gehiagoren eginkizunak gauzatzea erabakitzen denean, eginkizun nagusien arabera egingo da parekatzea.*

### Asimilación/berdinestea

(§5. 41.3) (g) *... la asimilación de tales socios a trabajadores por cuenta propia o a trabajadores por cuenta ajena...*

(§5. 41.3) (e) *... bazkide langileak beregaineko langileekin berdinestea edo inorentzat lan egiten duten langileekin berdinestea...*

c) En el ámbito del Derecho del Trabajo son evidentes las diferencias existentes entre *salario* y *sueldo*. De hecho, el término *salario*, que se ha dado en euskera a través del término *alokairua*, es un concepto inherente al Derecho del Trabajo, que hace referencia a las retribuciones que el empresario concede a los trabajadores, en contraprestación del trabajo que éstos realizan para aquél. Igualmente, los salarios cuentan con una protección especial. De ahí el concepto de asalariados.

(§1. 1.3.e) (g) *Los trabajos familiares, salvo que se demuestre la condición de asalariados de quienes los llevan a cabo...*

(§1. 1.3.e) (e) *Familiako lanak, frogatzen ez bada lan horiek egiten dituztenak alokairuko langileak direla...*

Por su parte, el legislador tan sólo ha utilizado una vez el concepto *sueldo*, en lugar de *salario*, en el Estatuto de los Trabajadores. Por tanto, en dicho supuesto, en la versión en euskera se ha mantenido el concepto *soldata*.

(§1. 45.1.h) (g) *Suspensión de sueldo y empleo, por razones disciplinarias.*

(§1. 45.1.h) (e) *Soldata eta enplegua etetea, diziplina-arrazoien ondorioz.*

De todos modos, conviene recordar que dicho concepto suele utilizarse para referirse a sujetos ajenos al Derecho del Trabajo, como pueden ser los funcionarios.

En el mismo sentido, cuando se trate de profesionales que prestan sus servicios, sin que concurren en ellos las notas de ajenidad y dependencia —v.gr. médicos, abogados, arquitectos—, en castellano se utiliza la palabra *honorarios* para hacer referencia a sus retribuciones. Si bien en el texto no aparece dicha palabra, en euskera se utilizaría el término *zerbitzu-sariak*.

4. Eztabaidatzen daudela, alderdiek edozein unetan erabaki dezakete eurek izendatutako bitartekariak parte hartzea.

#### **90. artikulua.** *Baliozkotasuna*

1. Lege honek aipatutako hitzarmen kolektiboak idatziz egin behar dira; idatziz egiten ez badira deuseztasun-zehapena ezarriko zaie.

2. Hitzarmenak lan-agintaritzaren eskudunari aurkeztu beharko zaizkio, erregistroan sartzeko ondore hutsetarako, alderdi negoziatzaileek horiek sinatu eta hamabost eguneko epean. Behin erregistratuta, bitartekaritzaren, tartekaritzaren eta adiskidetzeko organo publiko eskudunari bidaliko zaizkio, gordailutuan ditzan.

3. Hitzarmena erregistroan aurkeztu eta gehienez hamar eguneko epean, lan-agintaritzaren hitzarmen hori nahitaez eta dohainik argitaratzea aginduko du, «Estatuko Aldizkari Ofizialean» edo, hitzarmenaren lurralde-esparruaren arabera, kasuan kasuko «autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean»

«Boletín Oficial» de la provincia correspondiente.

4. El convenio entrará en vigor en la fecha en que acuerden las partes.

5. Si la autoridad laboral estimase que algún convenio conculca la legalidad vigente, o lesiona gravemente el interés de terceros, se dirigirá de oficio a la jurisdicción competente, la cual adoptará las medidas que procedan al objeto de subsanar supuestas anomalías, previa audiencia de las partes.

#### **Artículo 91.** *Aplicación e interpretación*

Con independencia de las atribuciones fijadas por las partes a las comisiones paritarias, de conocimiento y resolución de los conflictos derivados de la aplicación e interpretación con carácter general de los convenios colectivos, se resolverá por la jurisdicción competente.

No obstante lo anterior, en los convenios colectivos y en los acuerdos a que se refiere el artículo 83.2 y 3 de esta Ley, se podrán establecer procedimientos, como la mediación y el arbitraje, para la solución de las controversias colectivas derivadas de la aplicación e interpretación de los convenios colectivos.

El acuerdo logrado a través de la mediación y el laudo arbitral tendrán la eficacia jurídica y tramitación de los convenios colectivos regulados en la presente Ley, siempre que quienes hubiesen adoptado el acuerdo o suscrito el

edo probintziako «aldizkari ofizialean».

4. Hitzarmena alderdiek adostutako datan jarriko da indarrean.

5. Lan-agintaritzak uste badu hitzarmenen batek indarreko legezkotasuna urratzen duela edo hirugarrenen interesa modu astunean urratzen duela, ofizioz joko du jurisdikzio eskudunera; azken horrek bidezko diren neurriak hartuko ditu ustezko irregulartasunak ongi-tzeko, aurretiaz alderdiak entzun eta gero.

#### **91. artikulua.** *Aplikazioa eta interpretazioa*

Jurisdikzio eskudunak ebatziko ditu hitzarmen kolektiboak modu orokorrean aplikatu zein interpretatzean sortutako gatazkak, alderdiek batzorde parekideei eratziki dizkieten eskumenak gorabehera, horrelako gatazken berri izan eta horiek ebazteko.

Aurrekoa gorabehera, lege honen 83. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatiek aipatu hitzarmen kolektiboetan eta akordioetan bitartekaritza eta tartekaritza bezalako prozedurak ezar daitezke, hitzarmen kolektiboak aplikatu eta interpretatzean sortutako eztabaida kolektiboak konpontzeko.

Bitartekaritzaren bidez lortutako akordioek eta tartekaritza-laudoek izango dituzte lege honen hitzarmen kolektiboen eragingarritasun juridikoa eta izapideak, baldin eta akordioa lortu edo tartekaritza-konpromisoa hartu du-



compromiso arbitral tuviesen la legitimación que les permita acordar, en el ámbito del conflicto, un convenio colectivo conforme a lo previsto en los artículos 87, 88 y 89 de esta Ley.

Estos acuerdos y laudos serán susceptibles de impugnación por los motivos y conforme a los procedimientos previstos para los convenios colectivos. Específicamente cabrá el recurso contra el laudo arbitral en el caso de que no se hubiesen observado en el desarrollo de la actuación arbitral los requisitos y formalidades establecidos al efecto, o cuando el laudo hubiese resuelto sobre puntos no sometidos a su decisión.

Estos procedimientos serán, asimismo, utilizables en las controversias de carácter individual, cuando las partes expresamente se sometan a ellos.

tenek legitimazioa badute gatazkaren esparruan hitzarmen kolektiboa onartzeko, lege honen 87, 88 eta 89. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorri.

Akordio eta laudo horiek aurkara daitezke, hitzarmen kolektiboentzat ezarri arrazoien ondorioz eta prozeduren bidez. Bereziki, tartekaritza-laudoaren aurka errekurtsoa jar daiteke, tartekaritza-jardunerako ezarri betekizunak eta formalitateak bete ez badira, edo laudoak bere erabakiaren mende utzi ez diren gaien gainean erabaki badu.

Prozedura horiek erabil daitezke, berbat, banakako eztabaidetan, alderdiak esanbidez jartzen direnean prozedura horien mende.

## SECCIÓN II

### *Adhesión y extensión*

#### **Artículo 92.** *Adhesión y extensión*

1. En las respectivas unidades de negociación, las partes legitimadas para negociar podrán adherirse, de común acuerdo, a la totalidad de un convenio colectivo en vigor, siempre que no estuvieran afectadas por otro, comunicándolo a la autoridad laboral competente a efectos de registro.

2. El Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, o el órgano correspondiente de las Comunidades Autónomas con competencia en la materia, podrán

## II. ATALA

### *Atxikitzea eta hedatzea*

#### **92. artikulua.** *Atxikitzea eta hedatzea*

1. Kasuan kasuko negoziazio-unitateetan negoziatzeko legitimazioa duten alderdiek adostasunez erabaki dezakete indarreko hitzarmen osoari atxikitzea, baldin eta beste hitzarmen batek alderdiak ukitzen ez baditu; atxikitze hori lan-agintaritza eskudunari komunikatu behar zaio, erregistro-ondoretarako.

2. Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioak, edo autonomia-erkidegoetan gai horretan eskumena duen kasuan kasuko organoak, indarreko hi-

extender, con los efectos previstos en el artículo 82.3 de esta Ley, las disposiciones de un convenio colectivo en vigor a una pluralidad de empresas y trabajadores o a un sector o subsector de actividad, por los perjuicios derivados para los mismos de la imposibilidad de suscribir en dicho ámbito un convenio colectivo de los previstos en este Título III, debida a la ausencia de partes legitimadas para ello.

La decisión de extensión se adoptará siempre a instancia de parte y mediante la tramitación del procedimiento que reglamentariamente se determine, cuya duración no podrá exceder de tres meses, teniendo la ausencia de resolución expresa en el plazo establecido efectos desestimatorios de la solicitud.

Tendrán capacidad para iniciar el procedimiento de extensión quienes se hallen legitimados para promover la negociación colectiva en el ámbito correspondiente conforme a lo dispuesto en los artículos 87.2 y 3 de esta Ley.

tzarmen kolektibo baten xedapenak heda diezazkiekete, lege honen 82.3 artikuluan ezarri ondorekin, enpresa eta langile edota jarduera-sektore nahiz azpisektore batzuei, esparru horietan lege honen III. tituluari ezarri hitzarmen kolektiboak sinatzeko ezintasunak horiei eragindako galerengatik, baldin eta horretarako arrazoia bada esparru horietan halako hitzarmenak negoziatzeko legitimaziodun alderdirik ez izatea.

Hitzarmena hedatzeko erabakia hartuko da beti, alderdiek hala eskatuta, eta erregelamendu bidez ezarritako prozeduraren izapideak eginda. Prozedura horrek ezin izango du iraun hiru hilabete baino gehiago, eta, epe horretan esanbidezko ebazpenik ez badago, eskabidea gaitzetsi dela ulertuko da.

Hitzarmenaren hedatze-prozedura hasteko gaitasuna izango dute lege honen 87. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatietan xedatutakoaren arabera kasuan kasuko esparruan negoziazio kolektiboa hasteko legitimazioa dutenek.

#### TÍTULO IV

#### INFRACCIÓNES LABORALES

Derogado por el Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, por el que se aprueba el texto refundido de la ley sobre infracciones y sanciones en el orden social (BOE, núm. 189, 8 de agosto de 2000).

#### IV. TITULUA

#### LANEKO ARAU-HAUSTEAK

Indargabetuta, Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzazko Errege-dekretuaren ondorioz (EAO, 189. zk., 2000ko abuztuaren 8koa).

## DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera\***

Los beneficios y condiciones establecidos en la Ley 22/1992, de 3 de julio, de medidas urgentes sobre fomento del empleo y protección por desempleo, para la transformación en indefinidos de los contratos en prácticas y para la formación, se aplicarán a la conversión en indefinidos de los contratos formativos regulados en el artículo 11 de esta Ley.

**Segunda**

1. Las empresas que celebren contratos en prácticas con trabajadores con discapacidad tendrán derecho a una reducción, durante la vigencia del contrato, del 50 por 100 de la cuota empresarial de la Seguridad Social correspondiente a contingencias comunes.

2. Los trabajadores minusválidos contratados para la formación no se computarán para determinar el número máximo de estos contratos que las empresas pueden realizar en función de su plantilla.

3. Las empresas que celebren contratos para la formación con trabajadores minusválidos tendrán derecho a una reducción del 50 por 100 en las cuotas empresariales a la Seguridad Social previstas para los contratos para la formación.

---

\* Derogada por la Ley 63/1997, de 26 de diciembre, de medidas urgentes para la mejora del mercado de trabajo y el fomento de la contratación indefinida (BOE, núm. 312, 30 de diciembre de 1997).

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa\***

Enplegua sustatzeko eta langabezia babesteko presako neurriei buruzko uztailearen 3ko 22/1992 Legeak praktikaldiko eta prestakuntzarako kontratuak iraupen mugagabeko kontratu bihurtzeko ezarri onura eta baldintzak aplikatuko dira lege honen 11. artikuluan arautu heziketarako kontratuak iraupen mugagabeko bihurtzen direnean.

**Bigarrena**

1. Desgaitasuna duten langileekin praktikaldiko kontratuak egiten dituzten enpresek eskubidea izango dute gertakizun arruntei begira enpresaburuek Gizarte Segurantzari sartu beharreko kuotak 100eko 50ean gutxitzeko, kontratua indarrean izan bitartean.

2. Prestakuntzarako kontratatutako langile minusbaliatuak ez dira zenbatuko enpresek euren plantillaren arabera egin ditzaketen prestakuntzarako kontratuen gehieneko kopurua zehazteko.

3. Langile minusbaliatuekin prestakuntzarako kontratuak egiten dituzten enpresek eskubidea izango dute enpresaburuek Gizarte Segurantzari sartu beharreko kuotak 100eko 50ean gutxitzeko, prestakuntzarako kontratuentzat ezarritakoaren arabera.

---

\* Indargabetuta, Lan-merkatua hobetzeko eta iraupen mugagabeko kontratazioa sustatzeko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 63/1997 Legearen ondorioz (EAO, 312. zk., 1997ko abenduaren 30ekoa).

4. Continuarán siendo de aplicación a los contratos para la formación que se celebren con trabajadores minusválidos que trabajen en Centros Especiales de Empleo las peculiaridades que para dichos contratos se prevén en el artículo 7 del Real Decreto 1368/1985, de 17 de julio, por el que se regula la relación laboral de carácter especial de los minusválidos que trabajen en los Centros Especiales de Empleo.

### **Tercera**

Derogada por la Ley 63/1997, de 26 de diciembre, de medidas urgentes para la mejora del mercado de trabajo y el fomento de la contratación indefinida (BOE, núm. 312, 30 de diciembre de 1997).

### **Cuarta**

Las modificaciones introducidas por la presente Ley en la regulación legal del salario no afectarán a los conceptos retributivos que tuvieran reconocidos los trabajadores hasta el 12 de junio de 1994, fecha de entrada en vigor de la Ley 11/1994, de 19 de mayo, que se mantendrán en los mismos términos que rigieren en ese momento hasta que por convenio colectivo se establezca un régimen salarial que conlleve la desaparición o modificación de dichos conceptos.

### **Quinta**

Las retribuciones del personal de alta dirección gozarán de las garantías del salario establecidas en los artículos 27.2, 29, 32 y 33 de esta Ley.

4. Enpleguaren zentro berezietako langile minusbaliatuekin egindako pres-takuntzarako kontratuei aurrerantzean ere aplikatuko zaizkie enpleguaren zen-tro berezietan lan egiten duten minusba-liatuen lan-harreman bereziak arautze-ari buruzko uztailaren 17ko 1368/1985 Errege-dekretuaren 7. artikuluko bere-zitasunak, kontratu horiei begira.

### **Hirugarrena**

Indargabetuta, Lan-merkatua hobez-te eta iraupen mugagabeko kontrata-zioa sustatzeko presako neurriei buruz-ko abenduaren 26ko 63/1997 Legearen ondorioz (EAO, 312. zk., 1997ko aben-duaren 30ekoa).

### **Laugarrena**

Lege honek alokairuaren arauketari begira egindako aldarazpenek ez dituz-te ukituko langileek 1994ko ekainaren 12a arte aitortuak zituzten alokairu-kontzeptuak. Data horretan indarrean jarri zen maiatzaren 19ko 11/1994 Le-gea. Alokairu-kontzeptu horiei eutsiko zaie une hartan araututakoaren arabera, hitzarmen kolektibo bidez kontzeptu horiek desagertu edo aldarazteko mo-duko beste alokairu-araubide bat ezarri arte.

### **Bosgarrena**

Goi-zuzendaritzako langileen or-dainsariek izango dituzte lege honen 27.2, 29, 32 eta 33. artikuluetan ezarri alokairuaren bermeak.

**Sexta**

A efectos de ostentar representación institucional en defensa de intereses generales de los empresarios ante las Administraciones Públicas y otras entidades u organismos de carácter estatal o de Comunidad Autónoma que la tengan prevista, se entenderá que gozan de esta capacidad representativa las asociaciones empresariales que cuenten con el 10 por 100 o más de las empresas y trabajadores en el ámbito estatal.

Asimismo, podrán también estar representadas las asociaciones empresariales de Comunidad Autónoma que cuenten en ésta con un mínimo del 15 por 100 de los empresarios y trabajadores. No estarán comprendidas en este supuesto las asociaciones empresariales que estén integradas en federaciones o confederaciones de ámbito estatal.

Las organizaciones empresariales que tengan la condición de más representativas con arreglo a esta disposición adicional gozarán de capacidad para obtener cesiones temporales del uso de inmuebles patrimoniales públicos en los términos que se establezcan legalmente.

**Séptima**

La regulación de condiciones de trabajo por rama de actividad para los sectores económicos de la producción y demarcaciones territoriales en que no exista convenio colectivo podrá realizarse por el Gobierno, a propuesta del Ministerio de Trabajo y Seguridad So-

**Seigarrena**

Enpresaburuen interes orokorrak defendatzeari dagokionez erakundetan ordezkari-tza izan dadin, administrazio publikoetan eta ordezkari-tza hori ahalbidetzen duten estatuko zein autonomia-erkidegoetako beste erakunde edo organismo batzuetan, ulertuko da estatu-mailan enpresen eta langileen 100eko 10 edo gehiago duten enpresaburuen elkartei dagokiela ordezkari-tza-gaitasun hori.

Era berean, autonomia-erkidegoan enpresaburuen eta langileen 100eko 15 gutxienez duten enpresaburuen elkarteek ere ordezkari-tza izan dezakete. Ez dute halako ordezkari-tzarik izango estatuko federazio edo konfederazio-tera bildutako enpresaburuen elkarteek.

Xedapen gehigarri honen arabera ordezkari-tza handieneko izaera duten enpresaburuen erakundeek gaitasuna izango dute, ondare-ondasun higiezin publikoen erabilera aldi baterako lagapenaren bidez lortzeko, legeak ezarritakoaren arabera.

**Zazpigarrena**

Hitzarmen kolektiborik ez duten ekoizpenaren ekonomia-sektoreetako eta lurralde-esparruetako jarduera-adarren lan-baldintzak Gobernuak arau ditzake, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak hala proposatuta, eta berak egokitatzat jotzen dituen kontsultak

cial, previas las consultas que considere oportunas a las asociaciones empresariales y organizaciones sindicales, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 92 de esta Ley, que será siempre procedimiento prioritario.

### Octava

El Gobierno, a propuesta del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, recogerá en un texto único denominado Código de Trabajo, las distintas leyes orgánicas y ordinarias que, junto con la presente, regulan las materias laborales, ordenándolas en Títulos separados, uno por Ley, con numeración correlativa, respetando íntegramente su texto literal.

Asimismo se incorporarán sucesiva y periódicamente a dicho Código de Trabajo todas las disposiciones generales laborales mediante el procedimiento que se fije por el Gobierno en cuanto a la técnica de incorporación, según el rango de las normas incorporadas.

### Novena

Los anticipos reintegrables sobre sentencias recurridas, establecidos en la Ley de 10 de noviembre de 1942, podrán alcanzar hasta el 50 por 100 del importe de la cantidad reconocida en la sentencia en favor del trabajador.

**Décima.** *Cláusulas de los convenios colectivos referidas al cumplimiento de la edad ordinaria de jubilación*

En los convenios colectivos podrán establecerse cláusulas que posibiliten

aurretziaz enpresaburuen elkarteei eta sindikatuei eginda; ez zaio kalterik egingo lege honen 92. artikuluan xedatutakoari, prozedura horrek izango baitu lehenasuna.

### Zortzigarrena

Gobernuak, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak hala proposatuta, Lan-kodea izeneko testu bakar batean jasoko ditu, lege honekin batera, lan-arloko gaiak arautzen dituzten gainerako lege organiko eta arruntak. Lan-arloko gai horiek titulu bananduetan antolatuko ditu, lege bakoitzeko titulu bat jarrita, hurrenkerako zenbakiekin, eta testuak hitzez hitz errespetatuta.

Modu berean, Lan-kode horri gehituko zaizkio, elkarren segidan eta aldira, lan-arloko xedapen orokor guztiak; horretarako, gehitutako arauen lerruna kontuan hartu eta gehitze-teknikari dagokionez Gobernuak ezarriko duen prozedura erabiliko da.

### Bederatzigarrena

Errekurtsoa zein epairen aurka jarri eta epai horien gaineko aurrerakin itzulgarriak, 1942ko azaroaren 10eko Legean ezarriak, langilearen aldeko epaiak aitortutako zenbatekoaren 100eko 50 artekoak izan daitezke.

**Hamargarrena.** *Jubilazioa hartzeko adin arrunta betetzeari buruzko hitzarmen kolektiboetako klausulak*

Hitzarmen kolektiboetan lan-kontratua azkentzea ahalbidetzen duten

la extinción del contrato de trabajo por el cumplimiento por parte del trabajador de la edad ordinaria de jubilación fijada en la normativa de Seguridad Social, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

a) Esta medida deberá vincularse a objetivos coherentes con la política de empleo expresados en el convenio colectivo, tales como la mejora de la estabilidad en el empleo, la transformación de contratos temporales en indefinidos, el sostenimiento del empleo, la contratación de nuevos trabajadores o cualesquiera otros que se dirijan a favorecer la calidad del empleo.

b) El trabajador afectado por la extinción del contrato de trabajo, deberá tener cubierto el período mínimo de cotización o uno mayor si así se hubiera pactado en el convenio colectivo, y cumplir los demás requisitos exigidos por la legislación de Seguridad Social para tener derecho a la pensión de jubilación en su modalidad contributiva.

## Undécima

A los efectos de expedición de las certificaciones acreditativas de la capacidad representativa en el ámbito estatal prevista en el artículo 75.7 de esta Ley, las Comunidades Autónomas a las que haya sido transferida la ejecución de funciones en materia de depósito de actas relativas a las elecciones de órganos representativos de los trabajadores deberán remitir mensualmente copia de las actas electorales registradas a la oficina pública estatal.

klausulak jaso daitezke, langileak Gizarte Segurantzaren arautegian ezarri jubilazioa hartzeko adin arrunta betetzeagatik, baldin eta ondoko betekizunak betetzen badira:

a) Neurri hori lotu beharko zaie hartzarmen kolektiboan ezarri eta enplegu-politikarekin bat datozen xedeei, hala nola, enplegu-egonkortasuna hobetzeari, aldi baterako kontratuak mugagabeko bihurtzeari, enplegua eusteari, langile berriak kontratatzeari edo enplegu-kalitatearentzat mesedegarri den beste edozein xederi.

b) Lan-kontratuaren azkentzeak ukitutako langileak estalita izan beharko du gutxieneko kotizazioaldia, edo hori baino luzeagoa den aldia, hartzarmen kolektiboan hori itundu bada, eta Gizarte Segurantzaren legerian ezarri gainerako betekizunak bete beharko ditu, kontribuzio bidezko modalitatean jubilazio-pentsioa jasotzeko eskubidea izan dezan.

## Hamaikagarrena

Lege honen 75.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, estatu-mailan ordezkaritza-gaitasuna badela egiaztatzen duten ziurtagiriak emateko, langileen ordezkaritza-organoen hauteskunde-aktak gordailutzearen inguruko eginkizunak betearaztea transferitua duten autonomia-erkidegoek hilabetero bidali beharko diote estatuko bulego publikoari erregistratutako hauteskunde-akten kopia.

### **Duodécima**

El Gobierno podrá reducir el plazo mínimo de preaviso de un mes previsto en el párrafo segundo del artículo 67.1 de esta Ley, en los sectores de actividad con alta movilidad del personal, previa consulta con las organizaciones sindicales que en ese ámbito funcional ostenten, al menos, el 10 por 100 de los representantes de los trabajadores, y con las asociaciones empresariales que cuenten con el 10 por 100 de los empresarios y de los trabajadores afectados por el mismo ámbito funcional.

### **Decimotercera**

En el supuesto de que, aun no habiéndose pactado en el convenio colectivo aplicable un procedimiento para resolver las discrepancias en los períodos de consultas, se hubieran establecido conforme al artículo 83 de esta Ley, órganos o procedimientos no judiciales de solución de conflictos en el ámbito territorial correspondiente, quienes sean parte en dichos períodos de consulta podrán someter de común acuerdo su controversia a dichos órganos.

### **Decimocuarta**

Los contratos de interinidad que se celebren para sustituir al trabajador que esté en la situación de excedencia a que se refiere el artículo 46.3 de esta Ley, tendrán derecho a una reducción en las cotizaciones empresariales a la Seguridad Social por contingencias comunes en las cuantías que se especifican a continuación, cuando dichos contratos se celebren con beneficiarios de

### **Hamabigarrena**

Gobernuak murriz dezake lege honen 67.1 artikuluko 2. lerrokadan ezarri hilabeteko gutxieneko aurreabisua, langileek mugigarritasun handia duten jarduera-sektoreetan; horretarako, Gobernuak aurretiaz kontsultatu beharko ditu esparru funtzional horretan langileen 100eko 10 gutxienez duten sindikatuak, eta esparru funtzional horrek ukitutako enpresaburuen eta langileen 100eko 10 duten enpresaburuen elkar-teak.

### **Hamahirugarrena**

Aplikagarri den hitzarmen kolektiboan kontsultaldietako ezbaiak konpontzeko prozedurarik itundu ez arren, lege honen 83. artikuluaekin bat etorriz, kasuan kasuko lurralde esparruko gatazkak konpontzeko epaiketaz kanpoko organo edo prozedurak ezarri badira, kontsultaldi horietako alderdiek organo horien mende utz dezakete eztabaida, horretarako ados jarrita.

### **Hamalaugarrena**

Lege honen 46.3 artikuluko eszedentzian dagoen langilea ordeztzeko egindako bitarteko kontratuek eskubidea sortuko dute gertakizun arruntei begira enpresaburuek Gizarte Segurantzian sartu beharreko kuotak jarraian zehaztutako kopuruan gutxitzeko, baldin eta kontratu horiek egiten badira kontribuzio zein laguntza bidezko lan-gabeziaren ondoriozko prestazioak



prestaciones por desempleo, de nivel contributivo o asistencial, que lleven más de un año como perceptores:

a) 95 por 100 durante el primer año de excedencia del trabajador que se sustituye.

b) 60 por 100 durante el segundo año de excedencia del trabajador que se sustituye.

c) 50 por 100 durante el tercer año de excedencia del trabajador que se sustituye.

Los citados beneficios no serán de aplicación a las contrataciones que afecten al cónyuge, ascendientes, descendientes y demás parientes por consanguinidad o afinidad, hasta el segundo grado inclusive, del empresario o de quienes ostenten cargos de dirección o sean miembros de los órganos de administración de las empresas que revisitan la forma jurídica de sociedad y las que se produzcan con estos últimos.

Las contrataciones realizadas al amparo de lo establecido en esta disposición se regirán por lo dispuesto en el artículo 15.1.c) de esta Ley y sus normas de desarrollo.

**Decimoquinta.** *Aplicación de los límites al encadenamiento de contratos en las Administraciones públicas*

Lo dispuesto en el artículo 15.5 de esta Ley surtirá efectos en el ámbito de las Administraciones públicas y sus organismos autónomos, sin perjuicio de la aplicación de los principios constitucionales de igualdad, mérito y capaci-

urtebete baino gehiagoz jasotzen ari diren onuradunekin:

a) 100eko 95, ordeztutako langileak duen eszedentziako lehenengo urtean.

b) 100eko 60, ordeztutako langileak duen eszedentziako bigarren urtean.

c) 100eko 50, ordeztutako langileak duen eszedentziako hirugarren urtean.

Onura horiek ez zaizkie aplikatuko enpresaburuaren edo sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako zuzendaritza-karguen edo administrazio-organoetako kideen ezkontide, eta odol bidezko zein ezkontza bidezko bigarren gradurainoko aurreko, ondorengo eta gainerako ahaideekin egindako kontratuei, ezta sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako zuzendaritza-karguekin edo administrazio-organoetako kideekin egindako kontratuei ere.

Lege honen 15.1.c) artikuluan eta lege hori garatzen duten arauetan xedatutakoak arautuko ditu xedapen honetan ezarritakoaren arabera egindako kontratuak.

**Hamabosgarrena.** *Administrazio publikoetan kontratuak kateatzeari mugak aplikatzea*

Lege honen 15.5 artikuluan xedatutakoak ondoreak sortuko ditu administrazio publikoen eta horien erakunde autonomoen esparruan, enplegu publikoa lortzeko berdintasunaren, merezi-menduen eta gaitasunaren konstituzio-

dad en el acceso al empleo público, por lo que no será obstáculo para la obligación de proceder a la cobertura de los puestos de trabajo de que se trate a través de los procedimientos ordinarios, de acuerdo con lo establecido en la normativa aplicable.

### **Decimosexta**

Derogada por la Ley 43/2006, de 29 de diciembre, para la mejora del crecimiento y del empleo (BOE, núm. 312, 30 de diciembre de 2006).

## **DISPOSICIONES TRANSITORIAS**

### **Primera**

No obstante lo dispuesto en el artículo 11.2, párrafo d), los trabajadores que hubieran estado vinculados a la empresa por un contrato para la formación que no hubiera agotado el plazo máximo de tres años sólo podrán ser contratados nuevamente por la misma empresa con un contrato de aprendizaje por el tiempo que reste hasta los tres años, computándose la duración del contrato de formación a efectos de determinar la retribución que corresponde al aprendiz.

### **Segunda**

Los contratos en prácticas, para la formación, a tiempo parcial y de trabajadores fijos discontinuos, celebrados con anterioridad al día 8 de diciembre de 1993, fecha de entrada en vigor del Real Decreto-ley 18/1993, de 3 de diciembre, continuarán rigiéndose por la

-printzipioak aplikatzea gorabehera. Horrenbestez, lege honen 15.5 artikuluan xedatutakoak ez dio kalterik egingo kasuan kasuko lanpostuak prozedura arruntan bidez betetzeko betebeharrari, aplikatu beharreko arautegian ezarritakoarekin bat etorritz.

### **Hamaseigarrena**

Indargabetuta, hazkundera eta enplegua hobetzeko abenduaren 29ko 43/2006 Legearen ondorioz (EAO, 312. zk., 2006ko abenduaren 30ekoa).

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### **Lehenengoa**

Lege honen 11.2 artikuluko d) paragrafoan xedatutakoa gorabehera, hiru urteko gehieneko epea amaitu gabe prestakuntzarako kontratuaren bidez enpresari lotuta izan diren langileak berriro enpresa berberak kontrata ditzake ikastun-kontratuarekin, hiru urteko epea bete arte bakarrik; ikastunari dagozkion ordainsariak zehazteko prestakuntzarako kontratuaren iraupena zenbatuko da.

### **Bigarrena**

Abenduaren 3ko 18/1993 Errege Lege-dekretua 1993ko abenduaren 8an jarri zen indarrean. Data hori baino lehenago egindako praktikaldiko kontratuak, prestakuntzarako kontratuak, lanaldi partzialeko kontratuak eta jarraitutasunik gabeko lan finkoa duten langileen

normativa a cuyo amparo se concertaron.

Será de aplicación lo dispuesto en la presente Ley a los contratos celebrados al amparo del Real Decreto-ley 18/1993, de 3 diciembre, excepto lo dispuesto en el segundo párrafo d) del apartado 2 del artículo 11.

### **Tercera**

Los contratos temporales de fomento del empleo celebrados al amparo del Real Decreto 1989/1984, de 17 de octubre, concertados con anterioridad al 24 de mayo de 1994, fecha de entrada en vigor de la Ley 10/1994, de 19 de mayo, sobre medidas urgentes de fomento de la ocupación, continuarán rigiéndose por la normativa a cuyo amparo se concertaron.

Los contratos temporales cuya duración máxima de tres años hubiese expirado entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 1994 y que hayan sido objeto de una prórroga inferior a dieciocho meses, podrán ser objeto de una segunda prórroga hasta completar dicho plazo.

### **Cuarta**

En todo lo que no se oponga a lo establecido en la presente Ley, el contrato de relevo y la jubilación parcial continuará rigiéndose por lo dispuesto en los artículos 7 a 9 y 11 a 14 del Real Decreto 1991/1984, de 31 de octubre, por el que se regula el contrato a tiempo

kontratuak aurrerantzean ere arautuko dira kontratu horiek egin zirenean aintzat hartutako arautegiaren arabera.

Lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie abenduaren 3ko 18/1993 Errege Lege-dekretuaren babespean egindako kontratuei; salbuespenez, halako kontratuei ez zaie aplikatuko 11. artikuluko 2. idatz-zatiaren d) paragrafoko bigarren lerrokadan xedatutakoa.

### **Hirugarrena**

Lana sustatzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 19ko 10/1994 Legea 1994ko maiatzaren 24an jarri zen indarrean. Data hori baino lehenago eta urriaren 17ko 1989/1984 Errege-dekretuaren babespean, enplegua sustatzeko egindako aldi baterako kontratuak aurrerantzean ere arautuko dira kontratu horiek egin zirenean aintzat hartu zen arautegiaren arabera.

Aldi baterako kontratuen hiru urteko gehieneko epea 1994ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean amaitu bada, eta kontratu horiek hemezortzi hilabetetik beherako luzapena izan badute, bigarren luzapena izan dezakete epe hori bete arte.

### **Laugarrena**

Lege honetan ezarritakoaren aurka ez dauden alde guztietan, errelebu-kontratua eta jubilazio partziala aurrerantzean ere arautuko dira urriaren 31ko 1991/1984 Errege-dekretuaren 7. artikulutik 9.era koetan eta 11. artikulutik 14.era koetan xedatutakoaren arabera.

parcial, el contrato de relevo y la jubilación parcial.

### **Quinta**

Quedan vigentes hasta el 12 de junio de 1995 las normas sobre jornada y descansos contenidas en el Real Decreto 2001/1983, sin perjuicio de su adecuación por el Gobierno, previa consulta a las organizaciones empresariales y sindicales afectadas, a las previsiones contenidas en los artículos 34 al 38.

### **Sexta**

Las Ordenanzas de Trabajo actualmente en vigor, salvo que por un acuerdo de los previstos en el artículo 83.2 y 3 de esta Ley se establezca otra cosa en cuanto a su vigencia, continuarán siendo de aplicación como derecho dispositivo, en tanto no se sustituyan por convenio colectivo, hasta el 31 de diciembre de 1994.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior se autoriza al Ministerio de Trabajo y Seguridad Social para derogar total o parcialmente, de forma anticipada, las Reglamentaciones de Trabajo y Ordenanzas laborales, o para prorrogar hasta el 31 de diciembre de 1995 la vigencia de las Ordenanzas correspondientes a sectores que presenten problemas de cobertura, con arreglo al procedimiento previsto en el párrafo siguiente.

La derogación se llevará a cabo por el Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, previo informe de la Comisión

Errege-dekretu horrek arautu ditu lanaldi partzialeko kontratua, errelebu-kontratua eta jubilazio partziala.

### **Bosgarrena**

Indarrean izango dira, 1995eko ekainaren 12a arte, 2001/1983 Errege-dekretuan lanaldiaren eta atsedenaldeen inguruan jasotako arauak. Hala ere, Gobernuak horiek egoki ditzake 34. artikulutik 38.era koetan jasotako xedapenen arabera, aurretiaz ukitutako enpresaburuen erakundeak eta sindikatuak kontsultatuta.

### **Seigarrena**

Egun indarrean dauden lan-ordenantzak zuzenbide esku-emaile gisa aplikatuko dira 1994ko abenduaren 31 arte, baldin eta hitzarmen kolektiboek ez badituzte ordeztzen, eta lege honen 83. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatietan ezarritako akordioen bidez beste zer-bait ezartzen ez bada lan-ordenantza horien indarraldiaren gainean.

Aurreko lerrokadan xedatutakoari kalterik egin gabe, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioari baimena ematen zaio, lan-araudiak edo lan-ordenantzak oso-osoan edo zati batean, aurretiaz indargabetzeko, edo hutsuneak betetzeko arazoak dituzten sektoreetako ordenantzen indarraldia 1995eko abenduaren 31 arte luzatzeko, hurrengo lerrokadan ezarritako prozeduraren arabera.

Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak indargabetuko ditu horiek, aurretiaz Hitzarmen Kolektiboen Aholku

Consultiva Nacional de Convenios Colectivos relativo a la cobertura del contenido de la Ordenanza por la negociación colectiva. A tales efectos se valorará si en el ámbito de la correspondiente Ordenanza existe negociación colectiva que proporcione una regulación suficiente sobre las materias en las que la presente Ley se remite a la negociación colectiva.

Si la comisión informase negativamente sobre la cobertura, y existiesen partes legitimadas para la negociación colectiva en el ámbito de la Ordenanza, la comisión podrá convocarlas para negociar un convenio colectivo o acuerdo sobre materias concretas que elimine los defectos de cobertura. En caso de falta de acuerdo en dicha negociación, la comisión podrá acordar someter la solución de la controversia a un arbitraje.

La concurrencia de los convenios o acuerdos de sustitución de las Ordenanzas con los convenios colectivos que estuvieran vigentes en los correspondientes ámbitos, se regirá por lo dispuesto en el artículo 84 de esta Ley.

### Séptima

Toda extinción de la relación laboral producida con anterioridad al 12 de junio de 1994, fecha de entrada en vigor de la Ley 11/1994, de 19 de mayo, se regirá en sus aspectos sustantivo y procesal por las normas vigentes en la fecha en que aquélla hubiera tenido lugar.

A los procedimientos iniciados con anterioridad al 12 de junio de 1994 al

Batzorde Nazionalak txostena emanda ordenantzaren edukia negoziazio kolektiboaren bidez betetzeari buruz. Ondore horietarako, kasuan kasuko ordenantzaren esparruan lege honek negoziazio kolektiboari eratzikitako gaien gainean behar besteko arauketa egiteko negoziazio kolektiborik dagoen balioetsiko da.

Batzordeak hutsunea ez dela betetzen informatzen badu, eta ordenantzaren esparruan negoziazio kolektiborako legitimazioa duten alderdiak badaude, batzordeak deialdia egin diezaieke horiei, hutsuneak betetzeko hitzarmen kolektiboa edo gai jakin batzuen gaineko akordioa negoziatzea. Negociazio horretan akordiorik lortu ezean, batzordeak erabaki dezake eztabaida tartekaritzaren mende uztea.

Lege honen 84. artikuluan xedatutakoak arautuko du ordenantzak ordeztuko hitzarmenen edo akordioen eta kasuan kasuko esparruetan indarrean dauden hitzarmen kolektiboen arteko pilotzea.

### Zazpigarrena

Maiatzaren 19ko 11/1994 Legea 1994ko ekainaren 12an jarri zen indarrean. Data hori baino lehenago azken-dutako lan-harreman guztiak arautuko dira, alde substantibo zein prozesale-tan, lan-harremanok zein datatan azkendu eta data horretan indarrean zeuden arauen arabera.

Lege honen aurreko idazketaren araberako 40, 41 eta 51. artikuluetan

amparo de lo dispuesto en los artículos 40, 41 y 51 de esta Ley según la anterior redacción, les será de aplicación la normativa vigente en la fecha de su iniciación.

### Octava

1. Las elecciones para renovar la representación de los trabajadores, elegida en el último período de cómputo anterior a la entrada en vigor de esta Ley, podrán celebrarse durante quince meses contados a partir del 15 de septiembre de 1994, prorrogándose los correspondientes mandatos hasta la celebración de las nuevas elecciones a todos los efectos, sin que sea aplicable durante este período lo establecido en el artículo 12 de la Ley 9/1987, de 12 de junio, de órganos de representación, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

2. Por acuerdo mayoritario de los sindicatos más representativos podrá establecerse un calendario de celebración de elecciones a lo largo del período indicado en el párrafo anterior en los correspondientes ámbitos funcionales y territoriales.

Estos calendarios serán comunicados a la oficina pública con una antelación mínima de dos meses a la iniciación de los respectivos procesos electorales. La oficina pública dará publicidad a los calendarios, sin perjuicio de la tramitación conforme al artículo 67.1 de la presente Ley de los escritos de promoción de elecciones correspondientes a aquéllos.

xedatutakoaren babespean, 1994ko ekainaren 12a baino lehen hasitako prozedurei aplikatuko zaie prozedura horiek hasi zirenean indarrean zegoen arautegia.

### Zortzigarrena

1. Langileen ordezkaritza bada lege hau indarrean jarri aurreko azken aldian hautatutakoa, ordezkaritza hori berritzeko hauteskundeak egin daitezke 1994ko irailaren 15etik zenbatzen hasi eta hamabost hilabeteko epean. Kasuan kasuko agintaldiak luzatuko dira hauteskunde berriak egin arte ondore guztietarako, eta aldi horretan ez da aplikatuko administrazio publikoen zerbitzupeko langileen ordezkaritza-organoei, lan-baldintzen zehaztapenari eta partaidetzari buruzko ekainaren 12ko 9/1987 Legearen 12. artikuluan ezarritakoa.

2. Ordezkaritza handieneko sindikatuen gehiengoak hartutako erabakiaren bidez egutegia ezar daiteke, aurreko paragrafoan aipatutako aldian hauteskundeak egiteko, kasuan kasuko esparru funtzioaletan eta lurralde-esparruetan.

Egutegi horiek bulego publikoari komunikatu behar zaizkio kasuan kasuko hauteskunde-prozesuak hasi baino bi hilabete lehenago gutxienez. Bulego publikoak egutegi horiek argitaratuko ditu, eta ez zaie kalterik egingo lege honen 67.1 artikuluekin bat etorriz prozesu horietako hauteskundeak sustatzeko idazkien inguruan egin beharreko izapi-

La comunicación de estos calendarios no estará sujeta a lo dispuesto en el párrafo cuarto del artículo 67.1 de esta Ley.

Las elecciones se celebrarán en los distintos centros de trabajo conforme a las previsiones del calendario y sus correspondientes preavisos, salvo en aquellos centros en los que los trabajadores hubiesen optado, mediante acuerdo mayoritario, por promover las elecciones en fecha distinta, siempre que el correspondiente escrito de promoción se hubiese remitido a la oficina pública en los quince días siguientes al depósito del calendario.

Las elecciones promovidas con anterioridad al depósito del calendario prevalecerán sobre el mismo en el caso de que hubieran sido promovidas con posterioridad al 12 de junio de 1994 siempre que hubieran sido formuladas por los trabajadores del correspondiente centro de trabajo o por acuerdo de los sindicatos que ostenten la mayoría de los representantes en el centro de trabajo o, en su caso, en la empresa. Esta misma regla se aplicará a las elecciones promovidas con anterioridad al día indicado, en el caso de que en dicha fecha no hubiera concluido el proceso electoral.

3. La prórroga de las funciones de los delegados de personal y miembros de comités de empresa, así como los efectos de la misma, se aplicará plenamente cuando haya transcurrido en su totalidad el plazo señalado en el número 1 de esta disposición transitoria.

deei. Egutegi horien komunikazioa ez da egongo lege honen 67.1 artikulua 4. lerroak xedatutakoaren mende.

Hauteskundeak lantoki bakoitzean egingo dira, egutegian ezarritakoarekin eta horren araberako aurreabisuekin bat etorritik. Salbuespenez, lantokiko langileen gehiengoak hartutako erabakiaren bidez hauteskundeak beste data batean sustatzea erabaki daiteke, baldin eta hauteskundeak sustatzeko idazkia egutegia gordailutu eta hurrengo hamabost egunetan bidaltzen bazaio bulego publikoari.

Egutegia gordailutu baino lehen sustatutako hauteskundeek lehenago izango dute egutegian ezarritako hauteskundeei begira, 1994ko ekainaren 12a igaro ondoren sustatu badira, eta lantokiko langileek proposatu badituzte edo lantokian zein, hala denean, enpresan ordezkarien gehiengoak dute sindikatuek hartutako erabakiaren ondorioz proposatu badira. Erregela bera aplikatuko zaie aipatu eguna baino lehenago sustatutako hauteskundeei, baldin eta data horretan hauteskunde-prozesua oraindik amaitu ez bada.

3. Langileen eskuordeen eta enpresa-batzordeko kideen eginkizunen luzapena, bai eta horren ondoreak ere, bete-betean aplikatuko dira xedapen iragankor honen 1. zenbakian aipatu epea erabat igarotzen denean.

### **Novena**

El plazo de tres años para solicitar la presencia de un sindicato o de una organización empresarial en un órgano de participación institucional, al que se refiere la disposición adicional primera de la Ley Orgánica de Libertad Sindical, empezará a contarse a partir del día 1 de enero de 1995.

### **Décima**

A quienes en 1 de enero de 1995 se hallaren en las situaciones de incapacidad laboral transitoria o invalidez provisional, cualquiera que fuera la contingencia de la que derivaran, les será de aplicación la legislación precedente hasta que se produzca la extinción de aquéllas.

### **Undécima**

Las situaciones de excedencia por cuidado de hijos, vigentes el 13 de abril de 1995, fecha de entrada en vigor de la Ley 4/1995, de 23 de marzo, al amparo de lo dispuesto en la Ley 3/1989, de 3 de marzo, se regirán por lo dispuesto en esta Ley, siempre que en la citada fecha de entrada en vigor el trabajador excedente se encuentre dentro del primer año del período de excedencia o de aquel período superior al año al que se hubiera extendido, por pacto colectivo o individual, el derecho a la reserva del puesto de trabajo y al cómputo de la antigüedad.

En caso contrario, la excedencia se regirá por las normas vigentes en el momento del comienzo de su disfrute, hasta su terminación.

### **Bederatzigarrena**

Sindikatu-askatasunari buruzko Lege Organikoaren xedapen gehigarrietatik lehenengoaren arabera hiru urteko epea dago, sindikatu bat edo enpresaburuen erakunde bat instituzio-partaidetzako organoetan izatea eskatzeko. Epe hori 1995eko urtarrilaren 1etik aurrera hasi-ko da zenbatzen.

### **Hamargarrena**

1995eko urtarrilaren leian lanerako ezgaitasun iragankorreko edo behin-behineko baliaezintasuneko egoeretan daudenei aurreko legeria aplikatuko zaie egoera horiek azkendu arte, egoera horiek eratortzen dituen gertakizuna edozein izanda ere.

### **Hamaikagarrena**

Martxoaren 23ko 4/1995 Legea 1995eko apirilaren 13an jarri zen indarrean. Data horretan martxoaren 3ko 3/1989 Legearen babespean seme-alabak zaintzeagatik indarrean zeuden eszedentzia-egoerak lege honetan xedatutakoaren arabera arautuko dira, baldin eta martxoaren 23ko 4/1995 Legea indarrean jartzean eszedentzian dagoen langilea eszedentziako lehenengo urtean badago, edo, itun kolektibo bidez edo banakako itun bidez lanpostua erreserbatzeko eskubidea eta antzinatasuna zenbatzeko eskubidea luzatuta, urtebete baino gehiago badago egoera horretan.

Bestelako kasuetan, eszedentzia hasteko unean indarrean dauden arauk arautuko dute eszedentzia, hori amaitu arte.



## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

## XEDAPEN AZKENTZAILEA

### Única

Quedan derogadas cuantas disposiciones se opongan a lo dispuesto en esta Ley, y expresamente:

a) Ley 8/1980, de 10 de marzo, del Estatuto de los Trabajadores.

b) Ley 4/1983, de 29 de junio, de fijación de la jornada máxima legal en cuarenta horas, y de las vacaciones anuales mínimas en treinta días.

c) Ley 32/1984, de 2 de agosto, sobre modificación de determinados artículos de la Ley 8/1980, de 10 de marzo, del Estatuto de los Trabajadores.

d) De la Ley 8/1988, de 7 de abril, sobre infracciones y sanciones en el orden social, los artículos 6, 7 y 8.

e) De la Ley 3/1989, de 3 de marzo, por lo que se amplía a dieciséis semanas el permiso por maternidad y se establecen medidas para favorecer la igualdad de trato de la mujer en el trabajo, el artículo primero.

f) De la Ley 4/1990, de 29 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 1990, la disposición adicional segunda.

g) Ley 2/1991, de 7 de enero, sobre Derechos de Información de los representantes de los trabajadores en materia de contratación.

h) De la Ley 8/1992, de 30 de abril, de modificación del régimen de permisos.

### Bakarra

Indarririk gabe geratzen dira lege honen aurkako xedapen guztiak, eta esanbidez:

a) Martxoaren 10eko 8/1980 Legea, Langileen Estatutuari buruzkoa.

b) Ekainaren 29ko 4/1983 Legea, legezko gehieneko lanaldia berrogei ordutan, eta urteko gutxieneko oporrak hogeita hamar egunetan ezartzekoa.

c) Abuztuaren 2ko 32/1984 Legea, Langileen Estatutuari buruzko martxoaren 10eko 8/1980 Legearen zenbait artikululu aldarazi zuena.

d) Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko apirilaren 7ko 8/1988 Legearen 6, 7 eta 8. artikulua.

e) Amatasunaren ondoriozko baime-na hamasei asteraino luzatu eta lanean emakumeek tratu berdina izateko neurriak ezarri dituen martxoaren 3ko 3/1989 Legearen lehenengo artikulua.

f) Estatuko 1990. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 4/1990 Legearen bigarren xedapen gehigarria.

g) Urtarrilaren 7ko 2/1991 Legea, langileen ordezkariak kontratazio-gaie-tan dituzten informazio-eskubideei buruzkoa.

h) Langileen Estatutuari buruzko 8/1980 Legeak eta Funtzio Publikoa

sos concedidos por las Leyes 8/1980, del Estatuto de los Trabajadores, y 30/1984, de medidas para la reforma de la función pública, a los adoptantes de un menor de cinco años, el artículo 1.

i) Ley 36/1992, de 28 de diciembre, sobre modificación del Estatuto de los Trabajadores en materia de indemnización en los supuestos de extinción contractual por jubilación del empresario.

j) Ley 10/1994, de 19 de mayo, sobre Medidas urgentes de fomento de la ocupación, excepto las disposiciones adicionales cuarta, quinta, sexta y séptima.

k) De la Ley 11/1994, de 19 de mayo, por la que se modifican determinados artículos del Estatuto de los Trabajadores, del texto articulado de la Ley de Procedimiento Laboral y de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, el capítulo I, los artículos vigésimo y vigésimo primero del capítulo III, las disposiciones adicionales primera, segunda y tercera, las disposiciones transitorias primera, segunda y tercera, y las disposiciones finales, tercera, cuarta y séptima.

l) De la Ley 42/1994, de 30 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y de orden social, los artículos 36, 40, 41, 42 y 43 y la disposición adicional decimosexta.

m) De la Ley 4/1995, de 23 de marzo, de regulación del permiso parental y por maternidad, los artículos 1 y 3, la disposición adicional única y el párrafo

Eraldatzeko Neurriei buruzko 30/1984 Legeak bost urtetik beherako haurrak adoptatzen dituztenei emandako baimenen araubidea aldarazteko apirilaren 30eko 8/1992 Legearen 1. artikulua.

i) Abenduaren 28ko 36/1992 Legea, Langileen Estatutua aldarazteari buruzkoa, enpresaburuak jubilazioa hartzearen ondoriozko kontratu-azkentzeetan eman beharreko kalte-ordainei dago kienez.

j) Lana sustatzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 19ko 10/1994 Legea, horren laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak izan ezik.

k) Langileen Estatutuko, Lan-prozedurari buruzko Legearen artikuludun testuaren eta Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen zenbait artikulua aldarazi duen maiatzaren 19ko 11/1994 Legearen I. kapitulua, III. kapituluko hogeigarren eta hogeita batgarren artikulua, lehenengo, bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak, lehenengo, bigarren eta hirugarren xedapen iragankorrak, eta azken xedapenetatik hirugarrena, laugarrena eta zazpigarrena.

l) Zerga, administrazio eta lan-arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 42/1994 Legearen 36, 40, 41, 42 eta 43. artikulua, eta hamaseigarren xedapen gehigarria.

m) Guraso izatearen edo amatasunaren ondoriozko baimena arautu duen martxoaren 23ko 4/1995 Legearen 1 eta 3. artikulua, xedapen gehigarri ba-

primero y el inciso primero del párrafo segundo de la disposición transitoria única.

karra, eta xedapen iragankor bakarra-ren lehenengo lerrokada eta bigarren lerrokadako lehen tartekadura.

## DISPOSICIONES FINALES

## AZKEN XEDAPENAK

### Primera

El trabajo realizado por cuenta propia no estará sometido a la legislación laboral, excepto en aquellos aspectos que por precepto legal se disponga expresamente.

### Lehenengoa

Beregaineko langileek egindako lana ez da egongo lan-legeriaren men- de, lege-xedapenetan esanbidez horrela xedatu den aldeetan izan ezik.

### Segunda

Se crea una comisión consultiva nacional, que tendrá por función el asesoramiento y consulta a las partes de las negociaciones colectivas de trabajo en orden al planteamiento y determinación de los ámbitos funcionales de los convenios. El Ministerio de Trabajo y Seguridad Social dictará las disposiciones oportunas para su constitución y funcionamiento, autónomo o conectado con alguna otra Institución ya existente de análogas funciones. Dicha comisión funcionará siempre a nivel tripartito y procederá a elaborar y mantener al día un catálogo de actividades que pueda servir de indicador para las determinaciones de los ámbitos funcionales de la negociación colectiva. El funcionamiento y las decisiones de esta comisión se entenderán siempre sin perjuicio de las atribuciones que correspondan a la jurisdicción y la autoridad laboral en los términos establecidos por las leyes.

### Bigarrena

Aholku batzorde nazionala sortu da, eta horren eginkizuna izango da laneko negoziazio kolektiboetako alderdiak aholkatu eta kontsultatzea, hitzarmen- en esparru funtzionalak azaldu eta zehazteko asmoarekin. Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak xedapen egokiak emango ditu batzorde hori eratu eta jardunean hasteko, modu autonomoan edo antzeko eginkizunak dituen beste erakunderen bati lotuta. Batzorde horrek hiru alderdi izango ditu beti, eta negoziazio kolektiboaren esparru funtzionalen zehaztasunak adierazteko balio dezakeen jarduerakatalogoa egin eta egunean-egunean izango du. Batzorde horren jardunbideak eta erabakiek sekula ere ezin izango diete kalterik egin lan-jurisdikzioari eta -agintaritzari dagozkien eskumenei, legeek ezarritakoaren arabera.

### Tercera

El Gobierno, previas las consultas que considere oportunas a las asociaciones empresariales y organizaciones sindicales, dictará las normas necesarias para la aplicación del Título II de la presente Ley en aquellas empresas pertenecientes a sectores de actividad en las que sea relevante el número de trabajadores no fijos o el de trabajadores menores de dieciocho años, así como a los colectivos en los que, por la naturaleza de sus actividades, se ocasiona una movilidad permanente, una acusada dispersión o unos desplazamientos de localidad, ligados al ejercicio normal de sus actividades, y en los que concurren otras circunstancias que hagan aconsejable su inclusión en el ámbito de aplicación del Título II citado. En todo caso, dichas normas respetarán el contenido básico de esos procedimientos de representación en la empresa.

Con arreglo a las directrices que fije el órgano estatal de mediación, arbitraje y conciliación, al que corresponderá también su custodia, el Instituto Nacional de Estadística elaborará, mantendrá al día y hará público el censo de empresas y de población activa ocupada.

### Cuarta

El tipo de cotización para la financiación del Fondo de Garantía Salarial

### Hirugarrena

Aurretiaz enpresaburuen elkarteei eta sindikatuei egokitzen jotako kontsultak egin ondoren, Gobernuak behar diren arauak emango ditu, lege honen II. titulua enpresa eta kolektibo jakin batzuetan aplikatu dadin. Halako enpresen artean daude finko-izaerarik gabeko langile asko edo hemezortzi urtetik beherako langile asko dituzten jardura-sektoreetakoak. Halako kolektiboen artean daude euren jardueren izaeraren ondorioz, eta euren jarduerak ohikotasunez gauzatzeari lotuta, mugigarritasun etengabea dutenak, sakabanaketa nabarmena dutenak edo herri batetik bestera joan-etorrian ibili behar direnak. Halaber, halako kolektiboen artean daude beste ingurabar batzuk dituztenak, baldin eta inguruabar horiek komenigarri egiten badute kolektibo horiek II. titulu horren aplikazio-esparrura biltzea. Edozein kasutan ere, arau horiek errespetatu egingo dute enpresan ordezkaritza izateko prozedura horien oinarritzko edukia.

Estatistikako Institutu Nazionalak enpresen eta lan egiten duen biztanleria aktiboaren errolda egin, egunean-egunean izan eta argitaratuko du, estatuko bitartekaritza, tartekaritza eta adiskidetzeko organoak ezarritako jarraibideekin bat etorritik; organo horren eginkizuna izango da, berebat, errolda hori zaintzea.

### Laugarrena

Gobernuak Alokairuak Bermatzeko Funtza finantzatzeko kotizazio-tasa be-

podrá revisarse por el Gobierno en función de las necesidades del Fondo.

erriak dezake, Funtzaren beharizanen arabera.

### **Quinta**

El Gobierno dictará las disposiciones que sean precisas para el desarrollo de esta Ley.

### **Bosgarrena**

Gobernuak lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emango ditu.



**§2.**

**Azaroaren 8ko 31/1995 Legea,  
Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa**

**§2.**

**Ley 31/1995, de 8 de noviembre,  
de Prevención de Riesgos Laborales**

§2. LEY 31/1995, DE 8 DE NOVIEMBRE, DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES .....	235
<b>Exposición de motivos</b> .....	235
<b>Capítulo primero.</b> Objeto, ámbito y definiciones .....	246
<b>Capítulo II.</b> Política en materia de prevención de riesgos para proteger la seguridad y la salud en el trabajo .....	251
<b>Capítulo III.</b> Derechos y obligaciones .....	266
<b>Capítulo IV.</b> Servicios de prevención .....	292
<b>Capítulo V.</b> Consulta y participación de los trabajadores .....	298
<b>Capítulo VI.</b> Obligaciones de los fabricantes, importadores y suministradores ..	313
<b>Capítulo VII.</b> Responsabilidades y sanciones .....	315
<b>Disposiciones adicionales</b> .....	321
Primera .....	321
Segunda .....	322
Tercera .....	322
Cuarta .....	325
Quinta .....	326
Sexta .....	327
Séptima .....	328
Octava .....	328
Novena .....	328
Novena bis .....	329
Décima .....	329
Undécima .....	330
Duodécima .....	330
Decimotercera .....	330
Decimocuarta .....	331
Decimoquinta .....	331
<b>Disposiciones transitorias</b> .....	332
Primera .....	332
Segunda .....	333
<b>Disposición derogatoria</b> .....	333
Única .....	333
<b>Disposiciones finales</b> .....	335
Primera .....	335
Segunda .....	335



§2. AZAROAREN 8KO 31/1995 LEGEA, LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKOA .....	235
<b>Zioen azalpena</b> .....	235
<b>Lehenengo kapitulua.</b> Xedea, aplikazio-esparrua eta definizioak .....	246
<b>II. kapitulua.</b> Arriskuen prebentzio-arloko politika, laneko segurtasuna eta osasuna babesteko .....	251
<b>III. kapitulua.</b> Eskubideak eta betebeharrak .....	266
<b>IV. kapitulua.</b> Prebentzio-zerbitzuak .....	292
<b>V. kapitulua.</b> Langileak kontsultatzea eta langileen partaidetza .....	298
<b>VI. kapitulua.</b> Fabrikatzaile, inportatzaile eta hornitzaileen betebeharrak .....	313
<b>VII. kapitulua.</b> Erantzukizunak eta zehapenak .....	315
<b>Xedapen gehigarriak</b> .....	321
Lehenengoa .....	321
Bigarrena .....	322
Hirugarrena .....	322
Laugarrena .....	325
Bosgarrena .....	326
Seigarrena .....	327
Zazpigarrena .....	328
Zortzigarrena .....	328
Bederatzigarrena .....	328
Bederatzigarrena bis .....	329
Hamargarrena .....	329
Hamaikagarrena .....	330
Hamabigarrena .....	330
Hamahirugarrena .....	330
Hamalauugarrena .....	331
Hamabosgarrena .....	331
<b>Xedapen iragankorrak</b> .....	332
Lehenengoa .....	332
Bigarrena .....	333
<b>Xedapen indargabetzailea</b> .....	333
Bakarra .....	333
<b>Azken xedapenak</b> .....	335
Lehenengoa .....	335
Bigarrena .....	335



# **Ley 31/1995, de 8 de noviembre (Jefatura del Estado), de Prevención de Riesgos Laborales**

(BOE, núm. 269,  
de 10 de noviembre)

## **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

1

El artículo 40.2 de la Constitución Española encomienda a los poderes públicos, como uno de los principios rectores de la política social y económica, velar por la seguridad e higiene en el trabajo.

Este mandato constitucional conlleva la necesidad de desarrollar una política de protección de la salud de los trabajadores mediante la prevención de los riesgos derivados de su trabajo y encuentra en la presente Ley su pilar fundamental. En la misma se configura el marco general en el que habrán de desarrollarse las distintas acciones preventivas, en coherencia con las decisiones de la Unión Europea que ha expresado su ambición de mejorar progresivamente las condiciones de trabajo y de conseguir este objetivo de progreso con una armonización paulatina de esas condiciones en los diferentes países europeos.

De la presencia de España en la Unión Europea se deriva, por consi-

# **Azaroaren 8ko 31/1995 Legea (Estatuko Burutza), Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa**

(EAO, 269. zk.,  
azaroaren 10ekoa)

## **ZIOEN AZALPENA**

1

Konstituzioko 40.2 artikulua botere publikoei ezarri die, politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarrien artean, laneko segurtasun eta higienea zain-tzea.

Konstituzioaren agindu horrek dakar langileen osasunaz arduratuko den politika garatu beharra, hain zuzen, lanetik etorritako arriskuak prebenituko dituen. Ildo horretatik, lege hau da Konstituzioak agindutakoaren oinarri-rik garrantzitsuena. Bada, lege honek zehaztu du, prebentzio-ekintzak gauzatu behar diren esparru orokorra, Euro-par Batasuneko erabakiekin bat etor-riz. Hurrean ere, Europar Batasunaren nahia da, lan-baldintzak etengabe hobetzea, eta xede hori Europako herrial-deen lan-baldintzak apurka-apurka ba-teratuz erdiestea.

Beraz, Espainia Europar Batasunean dagoenez, nahitaezkoa da Espainiako

guiente, la necesidad de armonizar nuestra política con la naciente política comunitaria en esta materia, preocupada, cada vez en mayor medida, por el estudio y tratamiento de la prevención de los riesgos derivados del trabajo. Buena prueba de ello fue la modificación del Tratado constitutivo de la Comunidad Económica Europea por la llamada Acta Unica, a tenor de cuyo artículo 118 A) los Estados miembros vienen, desde su entrada en vigor, promoviendo la mejora del medio de trabajo para conseguir el objetivo antes citado de armonización en el progreso de las condiciones de seguridad y salud de los trabajadores. Este objetivo se ha visto reforzado en el Tratado de la Unión Europea mediante el procedimiento que en el mismo se contempla para la adopción, a través de Directivas, de disposiciones mínimas que habrán de aplicarse progresivamente.

Consecuencia de todo ello ha sido la creación de un acervo jurídico europeo sobre protección de la salud de los trabajadores en el trabajo. De las Directivas que lo configuran, la más significativa es, sin duda, la 89/391/CEE, relativa a la aplicación de las medidas para promover la mejora de la seguridad y de la salud de los trabajadores en el trabajo, que contiene el marco jurídico general en el que opera la política de prevención comunitaria.

La presente Ley transpone al Derecho español la citada Directiva, al tiempo que incorpora al que será nuestro cuerpo básico en esta materia disposiciones de otras Directivas cuya materia exige o aconseja la transpo-

política bateratzea Europako Erkidegoan gai horren inguruan sortu berri den politikarekin. Europako Erkidegoko politika gero eta gehiago arduratzen da, lanetik etorri arriskuen prebenitzeko azterketez eta tratamenduez. Horren adibide izan zen Agiri Bakuna deritzonak Europako Ekonomia Erkidegoaren Tratatu Eratzailea aldaraztea. Egin-eginean ere, Tratatuaren 118.A) artikuluaen ildotik, tratatua indarrean jarri zenetik, estatu kideek sustatu dute lan-baldintzak hobetzea, langileen segurtasun- eta osasun-baldintzetan aurrera egin ahala, baldintza horiek bateratzeko xedea lor dadin. Xede hori indartu egin da, Europar Batasuneko Tratatuak jaso gutxieneko xedapenak ezartzeko prozedurarekin; xedapenok zuzentzarauen bidez ezarri eta arian-arian aplikatu beharko dira.

Horrenbestez, langileen osasuna lanean babesteko, Europako altxor juridikoa eratu da. Altxor hori osatzen duten zuzentzarauen artean, duda-mudarik gabe, garrantzitsuena da EEE/89/391, langileen segurtasuna eta osasuna lanean hobetzeko neurri sustatzaileak aplikatzeari buruzkoa. Arian ere, zuzentzarau horrexek ezarri du Europako Erkidegoko prebentzio-politikaren esparru juridiko orokorra.

Lege honek Espainiako Zuzenbidea bildu du aipatu zuzentzaraua. Aldi berean, gai honetan, Espainian oinarritzko legea izango denari beste zuzentzarau batzuen xedapenak gehitu dizkio, zuzentzarau horien gaia aintzat hartuta,

sición en una norma de rango legal, como son las Directivas 92/85/CEE, 94/33/CEE y 91/383/CEE, relativas a la protección de la maternidad y de los jóvenes y al tratamiento de las relaciones de trabajo temporales, de duración determinada y en empresas de trabajo temporal.

Así pues, el mandato constitucional contenido en el artículo 40.2 de nuestra ley de leyes y la comunidad jurídica establecida por la Unión Europea en esta materia configuran el soporte básico en que se asienta la presente Ley. Junto a ello, nuestros propios compromisos contraídos con la Organización Internacional del Trabajo a partir de la ratificación del Convenio 155, sobre seguridad y salud de los trabajadores y medio ambiente de trabajo, enriquecen el contenido del texto legal al incorporar sus prescripciones y darles el rango legal adecuado dentro de nuestro sistema jurídico.

2

Pero no es sólo del mandato constitucional y de los compromisos internacionales del Estado español de donde se deriva la exigencia de un nuevo enfoque normativo. Dimana también, en el orden interno, de una doble necesidad: la de poner término, en primer lugar, a la falta de una visión unitaria en la política de prevención de riesgos laborales propia de la dispersión de la normativa vigente, fruto de la acumulación en el tiempo de normas de muy diverso rango y orientación, muchas de ellas anteriores a la propia Constitución

ezinbestekoa baita horiek lege-lerruneko arau batera biltzea. Zuzentarau horiek dira EEE/92/85, EEE/94/33 eta EEE/91/383, amatasuna eta gazteak babesteari buruzkoak, eta aldi baterako, iraupen jakineko eta aldi baterako laneko enpresetako lan-harremanen tratamenduari buruzkoa.

Laburbilduz, Konstituzioaren 40.2 artikulua jaso aginduak eta gai honetan Europar Batasunak ezarri erkidego juridikoak eratzten dute lege honen oinarriko euskarria. Horrez gain, 155. Hitzarmena, langileen segurtasun eta osasunari zein lan-inguruenari buruzkoa, berretsi ondoren, Espainiak Lanaren Nazioarteko Erakundearekin hartutako konpromisoek aberastu egin dute lege-testuaren edukia, lege-testuak Lanaren Nazioarteko Erakundearen aginduak jaso eta agindu horiei lege-lerrun egokia aitortu baitie Espainiako sistema juridikoan.

2

Alabaina, arategiaren ikuspuntu berria ez da soil-soilik konstituzio-aginduen eta Espainiako estatuaren nazioarteko konpromisoen ondorio. Halaber, Espainiako barne-antolamenduak beharizan bikoitza du. Batetik, amaitu behar da, lan-arriskuak prebenitzeko politikan dagoen batasunik ezarekin; batasunik eza indarreko arategi barreiatuaren ezaugarri da, eta arategia barreiatua da, denboran pilatu direlako lerrun zein joera oso desberdineko arauak, horietako asko Espainiako Konstituzioaren aurrekoak. Bestetik, dagoen-

española; y, en segundo lugar, la de actualizar regulaciones ya desfasadas y regular situaciones nuevas no contempladas con anterioridad. Necesidades éstas que, si siempre revisten importancia, adquieren especial trascendencia cuando se relacionan con la protección de la seguridad y la salud de los trabajadores en el trabajo, la evolución de cuyas condiciones demanda la permanente actualización de la normativa y su adaptación a las profundas transformaciones experimentadas.

3

Por todo ello, la presente Ley tiene por objeto la determinación del cuerpo básico de garantías y responsabilidades preciso para establecer un adecuado nivel de protección de la salud de los trabajadores frente a los riesgos derivados de las condiciones de trabajo, y ello en el marco de una política coherente, coordinada y eficaz de prevención de los riesgos laborales.

A partir del reconocimiento del derecho de los trabajadores en el ámbito laboral a la protección de su salud e integridad, la Ley establece las diversas obligaciones que, en el ámbito indicado, garantizarán este derecho, así como las actuaciones de las Administraciones públicas que puedan incidir positivamente en la consecución de dicho objetivo.

Al insertarse esta Ley en el ámbito específico de las relaciones laborales, se configura como una referencia legal mínima en un doble sentido: el primero, como Ley que establece un marco

neko zaharkiturik dauden arauketak eguneratu behar dira, eta aurretiaz aintzat hartu gabeko egoera berriak arautu. Beharizan horiek beti dira garrantzitsuak, baina garrantzi hori areagotu egiten da, beharizanok langileen laneko segurtasuna eta osasuna babesteari lotzen zaizkionean; izan ere, baldintza horiek gara daitezten, nahitaezkoa da arautegia etengabe eguneratzea eta gauzatutako aldaketa sakonekin egokitzea.

3

Hori guztia dela eta, lege honen xede da beharrezko bermeen eta erantzukizunen oinarritzko arautegia finkatzea, lan-baldintzek eratorritako arrisku-aurka, langileen osasuna maila egokian babes dadin. Gainera, xede hori bat etorri behar da lan-arriskuak prebenitzeko politika koherente, koordinatu eta eragingarriekin.

Langileei lan-esparruan aitortu zaien osasuna eta osotasun fisikoa babesteko eskubidea abiapuntu, legeak ezarri ditu lan-esparruan eskubide hori bermatuko duten betebeharrak, bai eta helburu hori betetzeko eragin positiboa izan dezaketen administrazio publiko- en jardunak ere.

Lege hau lan-harremanen esparruan kokatu da, eta, ondorenez, gutxieneko lege-erreferentzia da, ondoko bi esan-gura hauetan: bateko, lege-esparrua ezarri du, erregelamenduek esparru ho-

legal a partir del cual las normas reglamentarias irán fijando y concretando los aspectos más técnicos de las medidas preventivas; y, el segundo, como soporte básico a partir del cual la negociación colectiva podrá desarrollar su función específica. En este aspecto, la Ley y sus normas reglamentarias constituyen legislación laboral, conforme al artículo 149.1.7.<sup>a</sup> de la Constitución.

Pero, al mismo tiempo —y en ello radica una de las principales novedades de la Ley—, esta norma se aplicará también en el ámbito de las Administraciones públicas, razón por la cual la Ley no solamente posee el carácter de legislación laboral sino que constituye, en sus aspectos fundamentales, norma básica del régimen estatutario de los funcionarios públicos, dictada al amparo de lo dispuesto en el artículo 149.1.18.<sup>a</sup> de la Constitución. Con ello se confirma también la vocación de universalidad de la Ley, en cuanto dirigida a abordar, de manera global y coherente, el conjunto de los problemas derivados de los riesgos relacionados con el trabajo, cualquiera que sea el ámbito en el que el trabajo se preste.

En consecuencia, el ámbito de aplicación de la Ley incluye tanto a los trabajadores vinculados por una relación laboral en sentido estricto, como al personal civil con relación de carácter administrativo o estatutario al servicio de las Administraciones públicas, así como a los socios trabajadores o de trabajo de los distintos tipos de cooperativas, sin más exclusiones que las correspondientes, en el ámbito de la función pública, a determinadas actividades de

rretan prebentzio-neurrien alderik teknikoenak ezarri eta zehatz ditzaten; eta, besteko, oinarrizko euskarria ezarri du, negoziazio kolektiboak bere eginkizun zehatza bete dezan. Alde hauetan guztietan, legeak eta horren erregelamenduek lan-legeria osatzen dute, Konstituzioaren 149.1.7 artikulua erabera.

Baina, aldi berean —eta horretan datza legearen berrikuntzarik garrantzitsuenetako bat—, arau hau administrazio publikoen esparruan ere aplikatuko da. Hori dela bide, lege honek lan-legeriaren izaera du, eta, gainera, alderik funtsezkoenetan, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua xedatutakoaren arabera aldarrikatu funtzionario publikoen estatutu-araubidearen oinarrizko araua ere bada. Horrekin, igarri-igarrian dago lege honen helburu unibertsala, modu orokor eta koherentean jorratu behar baititu lan-harremanekin zerikusia duten arriskuen ondoriozko arazoak, lan egiten den esparrua edozein izanda ere.

Horrenbestez, legearen aplikazio-esparrura biltzen dira, lan-harremanak, esangura hertsian, dituzten langileak, administrazio publikoen zerbitzupan administrazio- zein estatutu-izae-rako harremanak dituzten langile zibilak, bai eta kooperatiba-mota desberdinetako bazkide langileak edo laneko bazkideak ere. Aitzitik, lege honen aplikazio-esparrutik kanpo daude funtzio publikoaren esparruko edozein jardura, polizia, segurtasun, aduana-gor-

policía, seguridad, resguardo aduanero, peritaje forense y protección civil cuyas particularidades impidan la aplicación de la Ley, la cual inspirará, no obstante, la normativa específica que se dicte para salvaguardar la seguridad y la salud de los trabajadores en dichas actividades; en sentido similar, la Ley prevé su adaptación a las características propias de los centros y establecimientos militares y de los establecimientos penitenciarios.

4

La política en materia de prevención de riesgos laborales, en cuanto conjunto de actuaciones de los poderes públicos dirigidas a la promoción de la mejora de las condiciones de trabajo para elevar el nivel de protección de la salud y la seguridad de los trabajadores, se articula en la Ley en base a los principios de eficacia, coordinación y participación, ordenando tanto la actuación de las diversas Administraciones públicas con competencias en materia preventiva, como la necesaria participación en dicha actuación de empresarios y trabajadores, a través de sus organizaciones representativas. En este contexto, la Comisión Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo que se crea se configura como un instrumento privilegiado de participación en la formulación y desarrollo de la política en materia preventiva.

Pero tratándose de una Ley que persigue ante todo la prevención, su articulación no puede descansar exclusivamente en la ordenación de las obli-

dekin, forenseen ikuskatze eta babes zibilarekin zerikusia dutenak. Jarduera horien berezitasunek lege hau aplikatzea eragotzi arren, lege honek oinarritzen du, jarduera horietan langileen segurtasuna eta osasuna zaintzeko onetsitako arautegi berezia; edu berean, lege honek aintzat hartu ditu zentro eta establezimendu militarretako zein espetxeetako ezaugarri bereziak, horietara egoki dadin.

4

Lege honetan, lan-arriskuak prebentzeko politika bideratzen da eragin-garritasun-, koordinazio- eta partaidetza-printzipioetan oinarrituta. Politika hori botere publikoen jardun-multzoa da, lan-baldintzak hobetzea sustatu behar duena, langileen osasunak eta segurtasunak babes gehiago izan dezaten. Orobat, politika horrek zuzendu behar ditu, hala prebentzio-arloan eskumenak dituzten administrazio publikoen jardunak, nola jardun horietan enpresaburuek eta langileek izan behar duten partaidetza, euren ordezkari-erakundeen bidez. Inguru horretan sortu den Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionala partaidetza-tresna ezin hobea da, prebentzio-arloko politika azaldu eta garatzeko.

Lege honen xede nagusia prebentzioa izan arren, beraren egitura ezin oinarri daiteke soil-soilik lan egitearekin zuzeneko zerikusia duten subjek-



gaciones y responsabilidades de los actores directamente relacionados con el hecho laboral. El propósito de fomentar una auténtica cultura preventiva, mediante la promoción de la mejora de la educación en dicha materia en todos los niveles educativos, involucra a la sociedad en su conjunto y constituye uno de los objetivos básicos y de efectos quizás más trascendentes para el futuro de los perseguidos por la presente Ley.

5

La protección del trabajador frente a los riesgos laborales exige una actuación en la empresa que desborda el mero cumplimiento formal de un conjunto predeterminado, más o menos amplio, de deberes y obligaciones empresariales y, más aún, la simple corrección a posteriori de situaciones de riesgo ya manifestadas. La planificación de la prevención desde el momento mismo del diseño del proyecto empresarial, la evaluación inicial de los riesgos inherentes al trabajo y su actualización periódica a medida que se alteren las circunstancias, la ordenación de un conjunto coherente y globalizador de medidas de acción preventiva adecuadas a la naturaleza de los riesgos detectados y el control de la efectividad de dichas medidas constituyen los elementos básicos del nuevo enfoque en la prevención de riesgos laborales que la Ley plantea. Y, junto a ello, claro está, la información y la formación de los trabajadores dirigidas a un mejor conocimiento tanto del alcance real de los riesgos derivados del trabajo como de la forma de preve-

tuen betebeharr eta erantzukizunen antolatketan. Benetako prebentzio-kultura bultzatzeko asmoak, hezkuntza-maila guztietan gai honen ingururuko heziketa hobeia sustatuz bideratu behar denak, gizarte osoaren partaidetza behar du. Gainera, etorkizunera begira, asmo hori da lege honek dituen oinarritzko xedekariko bat, eta, beharbada, ondorio garrantzitsuenak izango dituena.

5

Langilea lan-arriskuetatik babesteko, ez da nahikoa enpresaburuak behar besteko multzo zabala osatzen duten eginbehar eta betebeharr jakin batzuk betetzea, eta are gutxiago gauzatutako arrisku-egoerak gerogarrean zuzentzea. Bada, lege honek lan-arriskuak prebenitzeko ezarritako ikuspegi berrian, oinarritzko osagai dira, prebentzioaren plangintza, enpresa-egitasmoa diseinatzeko denetik; lanari datzekion arriskuen hasierako ebaluazioa eta ebaluazio horren aldizkako eguneratzea, inguruabarrak aldatu ahala; aurkitutako arriskuen izaerarekin bat datozen neurri koherente eta oro hartzaile batzuen antolaketa; eta neurri horien eragingarritasunaren inguruko kontrola. Orobat, ikuspegi berri horren oinarritzko osagai dira langileen informazioa eta prestakuntza, langileek hobeto ezagutu ditzaten, lanak eratorritako arriskuen benetako norainokoa eta arrisku horiek prebenitzeko zein saihesteko modua; informazio eta prestakuntza hori bat etorri behar da lantoki bakoitzaren ezaugarriekin, lantoki bakoitzean lan egiten duten pertsonen ezaugarriekin

nirlos y evitarlos, de manera adaptada a las peculiaridades de cada centro de trabajo, a las características de las personas que en él desarrollan su prestación laboral y a la actividad concreta que realizan.

Desde estos principios se articula el capítulo III de la Ley, que regula el conjunto de derechos y obligaciones derivados o correlativos del derecho básico de los trabajadores a su protección, así como, de manera más específica, las actuaciones a desarrollar en situaciones de emergencia o en caso de riesgo grave e inminente, las garantías y derechos relacionados con la vigilancia de la salud de los trabajadores, con especial atención a la protección de la confidencialidad y el respeto a la intimidad en el tratamiento de estas actuaciones, y las medidas particulares a adoptar en relación con categorías específicas de trabajadores, tales como los jóvenes, las trabajadoras embarazadas o que han dado a luz recientemente y los trabajadores sujetos a relaciones laborales de carácter temporal.

Entre las obligaciones empresariales que establece la Ley, además de las que implícitamente lleva consigo la garantía de los derechos reconocidos al trabajador, cabe resaltar el deber de coordinación que se impone a los empresarios que desarrollen sus actividades en un mismo centro de trabajo, así como el de aquellos que contraten o subcontraten con otros la realización en sus propios centros de trabajo de obras o servicios correspondientes a su actividad de vigilar el cumplimiento por dichos contratistas y subcontratistas de la normativa de prevención.

eta langileek gauzatzen duten jarduerarekin.

Printzipio horiek aintzat hartuta eratu da legearen III. kapituluak. Kapitulu horrek arautu ditu langileek babesa izateko duten oinarrizko eskubidetik etorritako eskubideak eta betebeharrak. Bestalde, modu zehatzagoan arautu ditu, larrialdi-egoeretan eta hur-hurreko arrisku larria dagoenean gauzatu beharreko jardunak; langileen osasuna zaintzearekin zerikusia duten bermeak eta eskubideak, aparteko garrantzia aitortuz isil-gordea babesteari eta jardun horiek gauzatu bitartean intimitatea errespetatzeari; eta langile-kategoria jakin batzuei begira hartu beharreko neurri bereziak, hala nola, gazteen, haurdun dauden langileen edo ume bategen erditu berri diren langileen eta aldi baterako lan-harremanak dituzten langileen inguruan.

Legeak enpresaburuari ezarri dizkion betebeharren artean, langileari aitortutako eskubideen bermeak modu implizituan eratorritakoez gain, nabarmendu behar da, lantoki berean jarduerak gauzatzen dituzten enpresaburuak ezarritako koordinazio-eginbeharra. Nabarmenezkoa da, berebat, beste batzuekin norberaren jarduerako obra edo zerbitzuak norberaren lantokietan egitea kontratatzen edo azpikontratatzen dutenen zaintza-eginbeharra, kontratariek eta azpikontratariek prebentzioaren inguruko arautegia bete dezaten.

Instrumento fundamental de la acción preventiva en la empresa es la obligación regulada en el capítulo IV de estructurar dicha acción a través de la actuación de uno o varios trabajadores de la empresa específicamente designados para ello, de la constitución de un servicio de prevención o del recurso a un servicio de prevención ajeno a la empresa. De esta manera, la Ley combina la necesidad de una actuación ordenada y formalizada de las actividades de prevención con el reconocimiento de la diversidad de situaciones a las que la Ley se dirige en cuanto a la magnitud, complejidad e intensidad de los riesgos inherentes a las mismas, otorgando un conjunto suficiente de posibilidades, incluida la eventual participación de las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales, para organizar de manera racional y flexible el desarrollo de la acción preventiva, garantizando en todo caso tanto la suficiencia del modelo de organización elegido, como la independencia y protección de los trabajadores que, organizados o no en un servicio de prevención, tengan atribuidas dichas funciones.

6

El capítulo V regula, de forma detallada, los derechos de consulta y participación de los trabajadores en relación con las cuestiones que afectan a la seguridad y salud en el trabajo. Partiendo del sistema de representación colectiva vigente en nuestro país, la Ley atribuye a los denominados delegados de prevención —elegidos por y entre los represen-

Enpresan prebentzio-ekintza aurera eramateko ezinbesteko tresna da, IV. kapituluaren araututako betebeharrak. Betebehar horren arabera, prebentzio-ekintza egituratu behar da, horretarako beren beregi izendatutako langile baten edo batzuen jardunaren bidez, horretarako eraturako prebentzio-zerbitzuaren bidez edo enpresatik kanpoko prebentzio-zerbitzu baten bidez. Horrela, legeak bateragarri egin ditu, prebentzio-jarduerak modu ordenatu eta formalizatuan gauzatea eta egoera desberdinak aitortzea, egoera horietako bakoitzak dituen arriskuen garrantzia, konplexutasuna eta intentsitatea aintzat hartuta. Egin-eginean ere, lege honek behar besteko aukerak ematen ditu, lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen mutuen parte-hartzea barne, prebentzio-ekintza modu arrazoitsu eta malgutan gauzatzeko. Gainera, bermatu egiten du aukeraturako antolaketa-eredua behar bestekoa izatea, eta prebentzio-eginkizunak dituzten langileen independentzia eta babesa, nahiz eta horiek prebentzio-zerbitzu gisa ez antolatatu.

6

V. kapituluak zehatz-mehatz arautu ditu langileen kontsulta- eta partaide-tza-eskubideak, laneko segurtasunaren eta osasunaren inguruan. Espainian indarrean dagoen ordezkari-tza-sistema kolektiboa oinarri hartuta, legeak prebentziorako eskuorde deritzenei —ordezkari-tza-organoen esparruan, langileen ordezkarien artean, langileen

tantes del personal en el ámbito de los respectivos órganos de representación— el ejercicio de las funciones especializadas en materia de prevención de riesgos en el trabajo, otorgándoles para ello las competencias, facultades y garantías necesarias. Junto a ello, el comité de seguridad y salud, continuando la experiencia de actuación de una figura arraigada y tradicional de nuestro ordenamiento laboral, se configura como el órgano de encuentro entre dichos representantes y el empresario para el desarrollo de una participación equilibrada en materia de prevención de riesgos.

Todo ello sin perjuicio de las posibilidades que otorga la Ley a la negociación colectiva para articular de manera diferente los instrumentos de participación de los trabajadores, incluso desde el establecimiento de ámbitos de actuación distintos a los propios del centro de trabajo, recogiendo con ello diferentes experiencias positivas de regulación convencional cuya vigencia, plenamente compatible con los objetivos de la Ley, se salvaguarda a través de la disposición transitoria de ésta.

7

Tras regularse en el capítulo VI las obligaciones básicas que afectan a los fabricantes, importadores y suministradores de maquinaria, equipos, productos y útiles de trabajo, que enlazan con la normativa comunitaria de mercado interior dictada para asegurar la exclusiva comercialización de aquellos productos y equipos que ofrezcan los mayores niveles de seguridad para

ordezkariak eurek hautatzen dituztenei— eratziki die laneko arriskuak prebenitzeko eginkizun bereziak egikaritzea, horretarako behar besteko eskumenak, ahalmenak eta bermeak aitortuz. Horrez gain, Espainiako lan-antolamenduan sustraitua eta tradizio handikoa den erakundearen jardunari eutsiz, segurtasun eta osasuneko batzordeak bere baitara biltzen ditu aipatu ordezkariak eta enpresaburua, arriskuak prebenitzeko arloan partaidetza orekatua izan dadin.

Hori guztia gorabehera, legeak negoziatio kolektiboari aitortu dio langileen partaidetza-tresnak beste era batera egituratzeko aukera, baita lantokiaz landa jarduteko esparruak ezartzeko aukera ere. Horrenbestez, legeak jaso du hitzarmen bidezko arauketaren edozenbat esperientzia positibo. Hitzarmen horien araukete guztiz bat egiten dute lege honen xedeekin, eta indarrean jarraitzen dute, lege honen xedapen iragankorrean oinarrituta.

7

VI. kapituluari fabrikatzaileen, inportatzaileen, eta makinak, ekipamenduak, produktuak eta lanabesak hornitzen dituztenen oinarriko betebeharrak arautu dira, Europako Erkidegoko barne-merkatuko arautegia aintzat hartuta. Hain zuzen, arautegi horren helburua da erabiltzaileentzat segurtasun-mailarik handiena duten produktuak eta ekipamenduak bakarrik merkaturatzen di-

los usuarios, la Ley aborda en el capítulo VII la regulación de las responsabilidades y sanciones que deben garantizar su cumplimiento, incluyendo la tipificación de las infracciones y el régimen sancionador correspondiente.

Finalmente, la disposición adicional quinta viene a ordenar la creación de una fundación, bajo el protectorado del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social y con participación, tanto de las Administraciones públicas como de las organizaciones representativas de empresarios y trabajadores, cuyo fin primordial será la promoción, especialmente en las pequeñas y medianas empresas, de actividades destinadas a la mejora de las condiciones de seguridad y salud en el trabajo. Para permitir a la fundación el desarrollo de sus actividades, se dotará a la misma por parte del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social de un patrimonio procedente del exceso de excedentes de la gestión realizada por las Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales.

Con ello se refuerzan, sin duda, los objetivos de responsabilidad, cooperación y participación que inspiran la Ley en su conjunto.

8

El proyecto de Ley, cumpliendo las prescripciones legales sobre la materia, ha sido sometido a la consideración del Consejo Económico y Social, del Consejo General del Poder Judicial y del Consejo de Estado.

rela ziurtatzea. Behin betebehar horiek araututa, legeak VII. kapituluan arautu ditu betebehar horiek betetzea bermatu behar duten erantzukizunak eta zehapenak, horretarako arau-hausteen tipifikazioa eta kasuan kasuko araubide zehatzailea ezarritz.

Amaitzeko, bosgarren xedapen gehigarriak fundazio baten eraketa arautu du, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren babesean, eta administrazio publikoen zein enpresaburuen eta langileen ordezkari-tza-erakunde-en partaidetzarekin. Fundazio horren xede nagusia izango da laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzeko jarduerak sustatzea, batez ere, enpresa txiki eta ertaintetan. Fundazio horrek bere jarduerak gauza ditzan, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak ondare jakin batekin zuzkituko du; ondare hori eratzen da lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen mutuek egindako kudeaketaren soberakinen gaindikinarekin.

Horrekin, bete-beteian indartzen dira legea osotasunean oinarritzen duten erantzukizun, lankidetzeta eta partaidetzaren inguruko xedeak.

8

Lege-egitasmoa, arlo horretako lege-xedapenek ezarritakoaren arabera, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Estatu Kontseiluaren esku jarri da.

## CAPÍTULO PRIMERO

### Objeto, ámbito de aplicación y definiciones

**Artículo 1.** *Normativa sobre prevención de riesgos laborales*

La normativa sobre prevención de riesgos laborales está constituida por la presente Ley, sus disposiciones de desarrollo o complementarias y cuantas otras normas, legales o convencionales, contengan prescripciones relativas a la adopción de medidas preventivas en el ámbito laboral o susceptibles de producirse en dicho ámbito.

**Artículo 2.** *Objeto y carácter de la norma*

1. La presente Ley tiene por objeto promover la seguridad y la salud de los trabajadores mediante la aplicación de medidas y el desarrollo de las actividades necesarias para la prevención de riesgos derivados del trabajo.

A tales efectos, esta Ley establece los principios generales relativos a la prevención de los riesgos profesionales para la protección de la seguridad y de la salud, la eliminación o disminución de los riesgos derivados del trabajo, la información, la consulta, la participación equilibrada y la formación de los trabajadores en materia preventiva, en los términos señalados en la presente disposición.

Para el cumplimiento de dichos fines, la presente Ley regula las actuaciones a desarrollar por las Administraciones públicas, así como por los

## LEHENENGO KAPITULUA

### Xedea, aplikazio-esparrua eta definizioak

**1. artikulua.** *Lan-arriskuak prebenitzeko arautegia*

Lan-arriskuak prebenitzeko arautegia osatzen dute lege honek, lege hau garatu edo osatzen duten xedapenek eta lan-esparruan prebentzio-neurriak hartzeko aginduak jaso dituzten arauk edo esparru horretan halako neurriak sor ditzaketen arauk, horiek lege zein hitzarmen bidezkoak izan arren.

**2. artikulua.** *Arauren xedea eta izaera*

1. Lege honen xedea da langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea, lanak eratorritako arriskuak prebenitzeko behar diren neurriak aplikatuz eta jarduerak gauzatzuz.

Ondore horietarako, lege honek lanbide-arriskuen prebentzioaren inguruko printzipio orokorrak jaso ditu, segurtasuna eta osasuna babesteko, lanak eratorritako arriskuak ezabatzeko edo gutxitzeko, prebentzio-arloan langileak informatzeko, kontsultatzeko, horien partaidetza orekatua izateko eta langileak eurrak prestatzeko, xedapen honek ezarritakoaren arabera.

Xede horiek betetzeko, lege honek arautu ditu administrazio publikoek gauzatu behar dituzten jarduerak, bai eta enpresaburuek, langileek eta horien or-

empresarios, los trabajadores y sus respectivas organizaciones representativas.

2. Las disposiciones de carácter laboral contenidas en esta Ley y en sus normas reglamentarias tendrán en todo caso el carácter de Derecho necesario mínimo indisponible, pudiendo ser mejoradas y desarrolladas en los convenios colectivos.

### **Artículo 3.** *Ámbito de aplicación*

1. Esta Ley y sus normas de desarrollo serán de aplicación tanto en el ámbito de las relaciones laborales reguladas en el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, como en el de las relaciones de carácter administrativo o estatutario del personal al servicio de las Administraciones públicas, con las peculiaridades que, en este caso, se contemplan en la presente Ley o en sus normas de desarrollo. Ello sin perjuicio del cumplimiento de las obligaciones específicas que se establecen para fabricantes, importadores y suministradores, y de los derechos y obligaciones que puedan derivarse para los trabajadores autónomos. Igualmente serán aplicables a las sociedades cooperativas, constituidas de acuerdo con la legislación que les sea de aplicación, en las que existan socios cuya actividad consista en la prestación de su trabajo personal, con las particularidades derivadas de su normativa específica.

Cuando en la presente Ley se haga referencia a trabajadores y empresarios, se entenderán también comprendidos en estos términos, respectivamente, de una parte, el personal con

dezkaritza-erakundeek gauzatu behar dituztenak ere.

2. Lege honek eta beraren erregelamenduek jaso lan-izaerako xedapenak aginduzko zuzenbide gutxieneko eta xedaezinak izango dira beti; xedapen horiek hitzarmen kolektiboetan hobe eta gara daitezke.

### **3. artikulua.** *Aplikazio-esparrua*

1. Lege hau eta berau garatzeko arauak aplikatuko dira, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginak araututako lan-harremanen esparruan, eta administrazio publikoen zerbitzupean dauden langileen administrazio- edo estatutu-izaerako harremanen esparruan, lege honek edo hori garatzen duten arauak halakoetan jaso berezitasunak aintzat hartuta. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo fabrikatzaile, inportatzaile eta hornitzaileentzat ezarritako betebeharrak zehatzak betetzeari, ezta langile autonomoentzat erator daitezkeen eskubide eta betebeharrak betetzeari ere. Orobat, lege hau eta berau garatzeko arauak aplikatuko zaizkie kooperatiba-sozietateei, horien arautegi bereziak dituen berezitasunak kontuan hartuta; kooperatiba horiek izango dira halakoei aplikatu beharreko legeriaren arabera eraturakoak, eta lan pertsonala egiten duten bazkideak dituztenak.

Halaber, lege honetan langileak eta enpresaburuak aipatzen direnean, horietara bilduko dira, hurrenez hurren, batetik, administrazio- edo estatutu-izaerako harremanak dituzten langileak

relación de carácter administrativo o estatutario y la Administración pública para la que presta servicios, en los términos expresados en la disposición adicional tercera de esta Ley, y, de otra, los socios de las cooperativas a que se refiere el párrafo anterior y las sociedades cooperativas para las que prestan sus servicios.

2. La presente Ley no será de aplicación en aquellas actividades cuyas particularidades lo impidan en el ámbito de las funciones públicas de:

—Policía, seguridad y resguardo aduanero.

—Servicios operativos de protección civil y peritaje forense en los casos de grave riesgo, catástrofe y calamidad pública.

—Fuerzas Armadas y actividades militares de la Guardia Civil.

No obstante, esta Ley inspirará la normativa específica que se dicte para regular la protección de la seguridad y la salud de los trabajadores que prestan sus servicios en las indicadas actividades.

3. En los centros y establecimientos militares será de aplicación lo dispuesto en la presente Ley, con las particularidades previstas en su normativa específica.

En los establecimientos penitenciarios, se adaptarán a la presente Ley aquellas actividades cuyas características justifiquen una regulación especial, lo que se llevará a efecto en los términos señalados en la Ley 7/1990, de 19 de julio, sobre negociación co-

eta horien zerbitzuak jasotzen dituen administrazio publikoa, lege honetako hirugarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, eta, bestetik, aurreko paragrafoak aipatu kooperatibetako bazkideak eta horien zerbitzuak jasotzen dituzten kooperatiba-sozietateak.

2. Lege hau ez da aplikatuko jarduera batzuetan, jarduera horien berezitasunek lege hau aplikatzea eragozten duten ondoko eginkizun publikoen esparruan:

—Polizia, segurtasuna eta aduanagordekina.

—Babes zibileko zerbitzu operatiiboak eta forenseen ikuskatzea, arrisku larriko egoeretan, hondamen-egoeretan eta zoritxar publikoko egoeretan.

—Indar armatuak eta Guardia Zibilaren jarduera militarrik.

Hala ere, lege honek oinarritzen du, aipatu jarduera horietan zein langilek zerbitzuak eman eta horien segurtasunaren eta osasunaren babesa arautzeko ematen den arautegi berezia.

3. Zentro eta establezimendu militarretan lege honetan xedatutakoa aplikatuko da, horien arautegi zehatzean jasotako berezitasunekin.

Espetxeetan lege honetara egokituko dira jarduera batzuk, euren ezaugarriek arauketa berezia justifikatzen dutenak. Egokitze hori gauzatuko da, uztailaren 19ko 7/1990 Legeak, enplegatu publikoen negoziazio kolektiboari eta horiek lan-baldintzen zehaztapene-



lectiva y participación en la determinación de las condiciones de trabajo de los empleados públicos.

4. La presente Ley tampoco será de aplicación a la relación laboral de carácter especial del servicio del hogar familiar. No obstante lo anterior, el titular del hogar familiar está obligado a cuidar de que el trabajo de sus empleados se realice en las debidas condiciones de seguridad e higiene.

#### **Artículo 4. Definiciones**

A efectos de la presente Ley y de las normas que la desarrollen:

1.º Se entenderá por «prevención» el conjunto de actividades o medidas adoptadas o previstas en todas las fases de actividad de la empresa con el fin de evitar o disminuir los riesgos derivados del trabajo.

2.º Se entenderá como «riesgo laboral» la posibilidad de que un trabajador sufra un determinado daño derivado del trabajo. Para calificar un riesgo desde el punto de vista de su gravedad, se valorarán conjuntamente la probabilidad de que se produzca el daño y la severidad del mismo.

3.º Se considerarán como «daños derivados del trabajo» las enfermedades, patologías o lesiones sufridas con motivo u ocasión del trabajo.

4.º Se entenderá como «riesgo laboral grave e inminente» aquel que resulte probable racionalmente que se materialice en un futuro inmediato y pueda suponer un daño grave para la salud de los trabajadores.

an parte hartzeari buruzkoak, ezarritakoaren arabera.

4. Familia-etxeko zerbitzarien lan-harreman bereziei ere ez zaie aplikatuko lege hau. Hori gorabehera, etxe-zerbitzuen titularrak nahitaez zaindu behar du bere langileen lana segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan egiten dela.

#### **4. artikulua. Definizioak**

Lege honen eta bera garatzen duten arauen ondoretarako:

1. «Prebentzioa» da enpresako jarduera-fase guztietan ezarritako jardueren edo hartutako neurrien multzoa, lanak eratorritako arriskuak saihesteko edo horiek murrizteko.

2. «Lan-arriskua» da lanaren ondorioz langileak kalteren bat izateko sibilitatea. Arrisku bat larritasunaren ikuspuntutik kalifikatzeko, batera baliotsiko dira kaltea gertatzeko probabilitatea eta kalte horren gogortasuna.

3. «Lanak eratorritako kalteak» dira lanean edo lana dela-bide izandako gaixotasun, patologia edo lesioak.

4. «Lan-arrisku larria edo hur-hurrekoa» da laster gerta daitekeena, horretarako arrazoiak izategatik, bai eta langileen osasunari kalte handia eragin diezaikeena ere.

En el caso de exposición a agentes susceptibles de causar daños graves a la salud de los trabajadores, se considerará que existe un riesgo grave e inminente cuando sea probable racionalmente que se materialice en un futuro inmediato una exposición a dichos agentes de la que puedan derivarse daños graves para la salud, aun cuando éstos no se manifiesten de forma inmediata.

5.º Se entenderán como procesos, actividades, operaciones, equipos o productos «potencialmente peligrosos» aquellos que, en ausencia de medidas preventivas específicas, originen riesgos para la seguridad y la salud de los trabajadores que los desarrollan o utilizan.

6.º Se entenderá como «equipo de trabajo» cualquier máquina, aparato, instrumento o instalación utilizada en el trabajo.

7.º Se entenderá como «condición de trabajo» cualquier característica del mismo que pueda tener una influencia significativa en la generación de riesgos para la seguridad y la salud del trabajador. Quedan específicamente incluidas en esta definición:

a) Las características generales de los locales, instalaciones, equipos, productos y demás útiles existentes en el centro de trabajo.

b) La naturaleza de los agentes físicos, químicos y biológicos presentes en el ambiente de trabajo y sus correspondientes intensidades, concentraciones o niveles de presencia.

Langileen osasunari kalte larriak eragin diezazkioketen agenteekin lan eginez gero, uste izango da arrisku larria eta hur-hurrekoa dagoela, agente horiekin lan egiteagatik, denbora gutxi barru osasunari kalte larriak eragiteko arrazoizko probabilitatea dagoenean, nahiz eta kalte horiek berehala agertu ez.

5. «Arriskutsuak izan daitezkeen» prozesu, jarduera, eragiketa, ekipamendu edo produktuak dira, prebentzio-neurri bezirik izan ezean, arriskuak eragiten dituztenak, halakoak gauzatzen edo erabiltzen dituzten langileen segurtasun eta osasunerako.

6. «Lan-ekipamendua» da lanean erabilitako edozein makina, tramankulu, tresna edo instalazio.

7. «Lan-baldintza» da lanaren edozein ezaugarri, langilearen segurtasun zein osasunerako arriskuak sortzeko eragin nabaria izan dezakeena. Definizio honetara beren beregi biltzen dira:

a) Lantokiko lokalen, instalazioen, ekipamenduen, produktuen eta gaine-rako lanabesen ezaugarri orokorrak.

b) Lan-inguruneko agente fisiko, kimiko eta biologikoen izaera, eta horien intentsitatea, kontzentrazioak eta presentzia-mailak.

c) Los procedimientos para la utilización de los agentes citados anteriormente que influyan en la generación de los riesgos mencionados.

d) Todas aquellas otras características del trabajo, incluidas las relativas a su organización y ordenación, que influyan en la magnitud de los riesgos a que esté expuesto el trabajador.

8.º Se entenderá por «equipo de protección individual» cualquier equipo destinado a ser llevado o sujetado por el trabajador para que le proteja de uno o varios riesgos que puedan amenazar su seguridad o su salud en el trabajo, así como cualquier complemento o accesorio destinado a tal fin.

c) Aipatu arriskuak sortzeko eragina duten agente horiek erabiltzeko prozedurak.

d) Langilearen arriskuen norainokotan eragina duten laneko gainerako ezaugarri guztiak, lana antolatzeko eta sailkatzeko ezaugarriak barne.

8. «Banakako babes-ekipamendua» da langileak aldean eramateko edo erabiltzeko edozein ekipamendu, langilea babesteko, laneko segurtasunaren eta osasunaren aurkakoa izan daitekeen arriskutik edo arriskuetatik, bai eta helburu bera duen edozein osagarri edo gehigarri ere.

## CAPÍTULO II

### **Política en materia de prevención de riesgos para proteger la seguridad y la salud en el trabajo**

#### **Artículo 5. *Objetivos de la política***

